



Udako jaialdiak, kultura plazara ateratzeko beste modu bat



Erreportajea | Asteburu honetan, Haizetara eta Uda Giro jaialdiak hasiko dira Durangaldean. Uztailean, Musikaierri ekingo diote. Durangaldeko kaleetan zehar, musika, dantza eta antzerkia zabalduko dituzte. • 2-3

Metalgintzako greban tentsioak gora egin du, atxiloketa eta guzti

Durangaldea | Grebaren laugarren egunean hainbat errepide moztu dituzte, eta Ertzaintzak behargin bi atxilotu ditu. Manifestazio jendetsua egin dute Durangon.

8. orrialdean



JIAIAK

ATXONDO BERRIZ



ALKI

BARNE DISEINUAK-en, bizitzeko espazioak sortzen ditugu.

alki@interioresalki.com / www.interioresalki.com

Mikeldi kalea 6, 48200 Durango. 946813895/679097744

Udako jaialdiak: kultura plazara ateratzeko beste modu atsegin bat

Musikaire, Haizetara edo Uda Giro jaialdiak datozen asteetan ipiniko dira martxan Durangaldean

KULTURA • ARITZ MALDONADO
Udako kultur jaialdiak ohikoak dira hirietan, eta Durangaldean ere ohiko bilakatzen ari diren hitzordua dira, herriko festez gainera, bestelako kultur eskaintza bat dutenak herritarrentzat. Azken urteetan, elkarte eta erakundeak ahalegin berezia egiten ari dira Durangaldean kulturaren magia kaleetan eta plazetan zabaltzeko. Neguan kulturaren babesleku diren aretoetatik atera, eta kalean erakusteko unea da. Beste era bateko publiko bati eskaintzeko asmoz, artista, programatzaile, eta herritarrentzat ere erronka bat da hau, ohikoak zaizkien herriko txokoak agertoki bilakatzen baitzaizkie.

Iurretako Kalez Kale kale antzerki jaialdia amaitu berri da, adibidez.

Euskal kale antzerkiko ekoizpen berriak aurkeztzen dituen festibala da Iurretakoa, eta hamahirugarren edizioa izan du aurtengoa. Durangon, Euskal

Jaiak azken txanpan sartu dira, eta datozen asteetan hainbat jaialdi ipiniko dituzte martxan. Tartean, Musikaire, Haizetara eta ibilbidide laburrakoa eduki arren interesgarria den Uda Giro (Uda Klean Bizi eta Jazzeruena jaialdien batura da).

Kale ikuskizunak erronka bat dira, baita artista, programatzaile eta ikusleentzat ere

Erronkak ezarri

Ikuskizunak beste modu batean gozatzeko aukera ematen dute kaleko jaialdiek, eta artista zein programatzaileek horixe nabarmentzen dute. Erronka bat ere bada, klean egoterakoan, ikusleek bestelako entretenimendu batzuk ere badituztelako. Egitarauak ANBOToko Agenda Digitalean daude, osorik.

“Kale antzerkian, pertsonaia bera bizirik dagoela transmititu dezakezu”

Ekainaren 28an, 'Kale Gorrian' aurkeztuko du Barsanti konpainiak Durangoko Balbino Garitaonandia plazan; pertsona nagusi bik etxe kaleratze bati aurre nola egiten dioten erakusten dute antzezlanean Aritz Rodriguezek, Pako Revueltasek eta Juanjo Oterok

Zelan joan zen aurreko asteko emaldia lurretan?

Oso gustura egon nintzen, niretzat lurretan aritzea berezia da eta. Antzezlanerako balkoi bat behar dugu, eta herritik bueltara ibili eta gero, bazekiten obra bat erakusteko nintzela. Gainera, *Kale Gorrian* dibertigarria da, baina badu ukitu makarra bat, eta gogo berezia nuen txikitatik gauzak egiten ikusi nauten aurrean erakusteko.

Zelako harrera eduki du 'Kale Gorrian'-ek?

Leioako Umore Azokan aipamen berezia egin ziguten, eta horrek asko lagundu digu. Horrez gainera, gure proiektua asko zabaldu da ahoz aho, bai publikoaren, bai programatzaileen artean. Ez zen gure

asmoa, baina adin tarte askotako publikoa ere gureganatu dugu, eta horrek eragingo zuela suposatzen dugu. Pertsona nagusi bik enpatia sortzen dute ume, gazte eta nagusiengan; guztiek konektatzen dute, eta horrek eragina izan du obran. Jendea lehenengo minutu-

“**Oso irudi biolentoa da adineko lagun bi maletekin ikustea, eta jendeak konektatu egiten du horregaz**”

tik inplikatzeko da etxe kaleratzearen aurka, eta ondo konektatzen dute Begoñak eta Marinok aurre egin behar dioten egoera injustu honegatik. Berez, oso irudi biolentoa da adineko lagun bi maletekin klean ikustea.

Horrez gainera, Gorka Agirregaz [Goya saria irabazi zuen, 2018an, *Handian* eginiko lanagatik] lan egiteko apustua egin genuen, eta ondo irten zaigu. Berak egin dizkigu maskarak. Ez genuen antzerkiko maskara tipikoak eduki gura. Zinearen hiper errealismora hurbildu gura genuen, eta hor asmatu egin dugu. Entseguetan kalera irtetean, pertsona nagusiak bagina bezala tratatzen gintuzten, eta horrek pista ugari eman zizki-

Musikairek munduko kulturen erakusleho bilakatu du Elorrio



Izaki Gardenak.

MUSIKAIRE • A.M.
Uztailaren 5ean hasiko da Musikaire, munduko musika, dantza eta antzerkien topagune dena. Beste urte batez, askotariko doinuez gozatu ahalgo da Elorrioren. Las maravillas de Mali taldeak, adibidez, musika afrikarrak eta doinu latinoak nahastuko ditu. Arturo O’Farrillek, Antonio Lizanak eta Mauren Choi Quartetek, oster, jazz izango dute ardatz.

Joseba Tapia eta Izaki Gardenak izango dira bertako doinuen ordezkariak. Beste alde batetik, Yllana konpainia entzutetsuak *The Opera Locos* ikuskizuna eskainiko du. Ohikoa bilakatu den moduan, jaialdia ixteko mikroantzerkiak egongo dira, Casa Jara Jauregian. Musikaire Elorrioren zabaldu guran, emanaldiak plazan eta Lariz, Tola eta Casa Jara jauregietan izango dira.

Musikaire

Joseba Tapia, uztailak 5, plazan, 22:30ean.

Las Maravillas de Mali, uztailak 6, plazan, 22:30ean.

Trikitilari gazteen VI. txapelketa, uztailak 7, plazan, 19:00etan.

Garikoitz Mendizabal, Xabi Zabala eta Kaabestri Ensemble, uztailak 12, Larizen, 22:30ean.

Arturo O’Farrill&Antonio Lizana, uztailak 13, Larizen, 22:30ean.

Ray Fernandez, uztailak 14, Larizen, 19:30ean.

Rorbert Smith Bluesband, uztailak 19, Tolan, 22:30ean.

Mauren Choi Quartet, uztailak 20, Tolan, 22:30ean.

Dantza garaikidea, uztailak 21, plazan, 19:30ean.

Izaki Gardenak, uztailak 26, plazan, 22:30ean.

‘The Opera Locos’, uztailak 27, plazan, 22:30ean.

Mikroantzerkiak, uztailak 28, Casa Jaran

Musika, dantza, antzerkia eta zirkua eskutik, uztailan Durango girotzeko




Adi!.

DURANGO • A.M.
Plateruena eta San Agustin kultur-guneen baturatik dator *Uda Giro* kale jaialdia. Iaz formulak edukitako harrera ona errepikatzea erabaki dute gune bietako arduradunek. Kasu honetan, musikak, antzerkiak, zirkuak eta dantzak hartuko

dituzte Durangoko kaleak. Ekainaren 21ean emango diote hasiera egitarauari, Durangoko Bogoroditsie abesbatzaren *Sueño de una noche de verano* ikuskizunagaz.

Jazz doinuek Platerueneko terrazan konkistatuko dute beste uztail batez. "Jazzak eskaintzen dituen



gun kalean jolasteko eta inprobi-satzeko. Iaz, hamabost emanaldi egin genituen, eta aurten beste hamar egin ditugu. Dozena bat ditugu aurretik oraindino.

Beraz, aukera ona da obra Duran-gon ikusteko.

Publikoak eskertzen du asko ari-tuta etortzea. Momentu honetan, sasoiko gatoz. Esketx klasikoak dira asko, oinarritzko clown *ti-ming* bat darabiltenak. Ondo era-biltzen ez baduzu, ez du funtzio-natuko, baina ondo eginez gero, bere puntuan eramanez gero, publikoak gozatua hartzen du eta izugarri disfrutatzen du.

Kale antzerkian, zer garrantzi du publikoagaz interaktuatzeak? Alde handia du aretoko antzerkiagaz?

Hasteko, kalean ez dago lauga-rren horma hori, agertokiaren ahoak izango lukeena. Kale an-tzerkian, ikuslearen etxean edo zure herrian sartzen da antzez-lana, eta jendea, lotsa galduta, in-teraktuatzer auzartzen da. Hori lorpen bat da, baina guztiz zentra-tuta egon behar duzu horretara, publikoari zenbat ematen diozun neurtu behar duzulako ere. Arris-kutsua izan daiteke, herritarrek parte hartzen dutelako, ume zein nagusi, eta kontuan hartu behar da hori. Egia esan, guk urteak da-ramatzagu horretan lanean, eta baliabide asko ditugu horregaz jolasteko. Ni neu asko betetzen nau horrek, eta ikaragarri maite dut kaleko antzerkia egitea. Gus-tuko dut auto bat igarotzea, hark

klaxona jotzea, eta nik erantzuteko aukera izatea, beti ere pertsonaia-ren hariaren barruan. Pertsonaia bera bizirik dagoela transmititu dezakezu, eta sentsazio itzela da hori. Aktore batzuek beldurra diote horri, baina niri gustatzen zait.

Kaleko kultura-eskaintza hazten ari dela uste duzu?

Orain urte batzuk baino eskaintza gehiago dago, baina, egia esan, jaialdi edo ekimen hauek antola-tzaileen inplikazio pertsonalagatik aurrera egiten dute. Gauza gehiago daude, bai, baina ezin gara horrela geratu, eustea bakarrik sekulako lana delako. Erakundeetatik bultza-da eman behar zaie kaleko arteei; kulturari, orokorrean.

Herritar modura ere, babestu egin behar dira horrelako ekime-nak, ikasturte amaieran umeen emanaldira goazenetan bezala. Politikarien baremoaren arabera, publikorik ez badago, ez dago di-ru-laguntzarik. Artea eta kultura defizitariotzat hartzen dira, ez dutelako diru sarrerarik sortzen, baina pentsaera hori aldatu egin behar da. Jendeak jarrera aldatu behar du, beharrezkotzat ikusteko. Ezin dugu guztia ekimen pribatua-ren eskuetan utzi.

Zergatik ikusi behar dute duranga-rrek 'Kale Gorrian'?

Obra ikustera joateko deia egiten diet durangarrei. Baita iurretarrei ere, jakina. Eta ikusi zutenei, gai-nerakoei gomendatzeko eskatzen diet. Edozein artek jendea eralda-tzen du, eta hurbildu egin behar

zaio. Ez dago Guggenheimer a joan beharrik arteaz gozatzeko.

Gure produktuen autokontsu-moa sustatu behar dugu, eta espor-tatu gero. Eta noski, kanpoko gau-zak ekarri, aberastu egiten duelako. Kaleko arteagaz gertatzen dena

“
Gure produktuen autokontsumoa bultzatu behar dugu, eta kanpora esportatu gero”
”

ezagutzero emateko ahalegina egin behar dugu; azken urteetan, ber-tako ekoizpen asko MAX sarietan lehiatu dira: Gorakada, Kukai, Er-tza, Kulunka... Kanpoan harritu egi-ten dira hemen egiten dugunagaz. Hemengo ekitaldietara joan beha-rra daukagu, eta kontzienteak izan behar dugu, produktu oso onak egiten direla gure herrialdean.

Baduzu beste produkturik esku artean?

*Kale Gorrian*en emanaldiez gainera, uztaillean eta abuztuan Bilboko zine jaialdia aurkeztuko dut hiru-garren urtez. Uztaillean, *Txarriboda* musikalagaz jarraituko dut; sei lagunek parte hartzen dugu, zuze-neko musikagaz, eta harrera ona izan du. *Camiselle* obra ere berresku-ratuko dut; urtarrilean Zornotzan egongo gara haur lapurtuei buruz-ko obra honegaz.

Uda Giro

Bogoroditsieren ‘Sueño de una noche de verano’, ekainaren 21ean, 20:00etan, Ezkurdin.

Javier Lopez Jaso&Marcelo Escrich 4tet, ekainaren 26an, 21:00etan, Plateruenean.

‘Kale Gorrian’, ekainaren 28an, 19:00etan, Balbino Garitaonandian.

Adi!, uztailaren 3an, 21:00etan, Plateruenean.

‘Overnight’, uztailaren 6an, 20:00etan, Kurutzesantu museoa.

Fredi Pelaez Organ Trio, uztailaren 10ean, 21:00etan, Plateruenean.

‘Prozak’, uztailaren 13an, 19:00etan, Aurora Abasolon.

Jon Urrutia Trio, uztailaren 17an, 21:00etan, Plateruenean.

‘Block’ eta ‘Consequences’, uztailaren 20an, 19:00etan eta 19:30ean Ezkurdin eta Benita Uribarrenan.

aukeretan miatzeko aukera egongo da: rock ukituak dituen jazz iluna zein funk dantzagarria hurbiltzen den jazz a, doinu tradizionalagoak zein garaikideak", azaldu zuen aurkezpenean Ihintza Orbegozo Platerueneko arduradunak. Egu-raldiak lagunduz gero, giro berezia

sortzen da Platerueneko terrazan, kandelen argiekin eta jazz doinue-kin. Antzerkiari dagokionez, "kalea aldarrikatzeko modu bat" da Uda Giro Arantza Arrazolaren berbetan. "Aktore eta ikusleen arteko elkarte a ikusgarria izaten da horrelakoe-tan", adierazi du.



Haizetara 2018.

Bederatzi banda lehiatuko dira Haizetara kale musika jaialdian

ZORNOTZA • A.M.

Ekainaren 21ean hasita, hamabi musika bandak Zornotzako kaleak girotuko dituzte euren doinuekin domekara bitartean. Hori etako bederatzi, bandarik onenaren saria, instrumentista-rik onenarena eta publikoarena irabazteko lehiatuko dira. 3In-darrok elektrotzaranga (Euskal Herria), Flat Cap Brass (Ingale-terra), La Orquesta de Ermesinde (Herrialde Katalanak), Befunk-pop (Espainia), Muchachos Brass

(Espainia), Sopa Loca (Frantzia), Jingle Django (Espainia), Hum-musman (Herrialde Katalanak) eta Eyo’nle Brras Band (Benin-go Errepublik a) dira taldeak. Lehiaketatik kanpora, Broken Brothers Brass Band, Bloco Rebe-laSon eta Lambrot en Brass Band arituko dira.

Bestelako ekintzak ere egon-go dira: Josu Gonzalez Quartetek jam session bi eskainiko ditu, eta Swing Side elkarteak, dantza saio bi.

Haizetara

Ekainak 21, banden emanaldiak, Zelaia etatik hasita, 19:30ean hasi eta 00:00ak arte, **Jou Gonzalez 4tet**, Harrison hotelean, 00:00etan.

Ekainak 22, Trakamatraka tailerra, Zelaia etan, 12:00etan, **banden emanaldiak**, 12:00-14:00 eta 19:00-00:00 bitartean, **Jou Gonzalez 4tet**, Harrison hotelean, 00:00etan.

Ekainak 23, banden emanaldiak, 11:30-13:00 bitartean,

Sari banaketa, 13:00etan, Zelaia etan.

Abadiñon EAJk izango du alkatetza, independenteen babesari eskerrak

Abadiñon EH Bilduk irabazi zituen udal hauteskundeak, baina EAJk gobernatuko du herria datozen lau urteetan, Abadiñoko Independentteen babesa jasota

ABADIÑO • A.B. / M.O.

Historian lehenengoz, Abadiñon EH Bilduk irabazi zituen hauteskundeak, 400 botoko aldeagaz, eta zinegotzietan jesarleku bateko aldea atera zien EAJ eta Alri. Azkenean, EAJko Mikel Garaizabal izango da alkate, independienteen babesa jasota. Garaizabalek babes hori eskertu zuen, eta EH Bilduri "Abadiñoren alde elkarlana" garatzea eskaini zion.

EH Bilduko Mikel Urrutiak azaldu zuen hiru alderdiak elkar-lanean aritzea proposatu zutela. Baina ez zuten lortu. "Irudipena dugu EAJko eta Alko goiko mai-lako ordezkariak dena lotuta izan dutela aurretik", esan zuen.



12 urteren ondoren, EAJk berreskuratu du alkatetza.

12 urteren ondoren, Atxondon EAJk du udaleko agintea

Zapatuan eginiko osoko bilkuran, David Cobosek Xabier Azkarate jeltzaleari pasatu zion herriko aginte makila

ATXONDO • M.Z. / M.O.

Atxondon, EAJk irabazi zituen hauteskundeak, eta berak edukiko du alkatetza legealdi berrian. David Cobosek Xabier Azkarateri pasatu zion aginte makila, zapatuan. EAJk 5 zinegotzi izango ditu, eta EH

Bilduk 4. Ane Intxaustik (EH Bildu) zoriondu egin zituen jeltzaleak, eta galdetu zien ea zer iritzi duten AHTari buruz. Azkaratek ez zuen iritzirik eman, baina aurrerantzean berba egiteko prest agertu zen.



Atxondoko udalbatza berriaren irudia, talde argazkian.

EAJren eta PSE-EEren arteko akordio orokorra aplikatu dute Zaldibarren

EH Bilduk ez du gobernatzen jarraituko, maiatzaren 26an gailendu zen arren.



Datozen lau urteetako Zaldibarko udalbatza.

ZALDIBAR • A.M. / M.O.

Eajk eta PSE-EEk akordio orokorra sinatu zuten erkidegoan, irabazi ez arren gobernatzeko aukera zuten udaletarako. Eta, Zaldibar da udal horietako bat. Beraz, Eneritz Azpitarte buru zuen EH Bilduk ez du goberna-

tzen jarraituko, maiatzaren 26an gailendu arren. Jeltzale eta sozialisten akordioari eskerrak, Jose Luis Maiztegi (EAJ) izango da herriko alkate berria. “Gugan jarritako konfiantza eskertu, eta hamaika zinegotziok Zaldibarren alde lan egiten asmatuko dugula

itxaroten dugu”, esan zuen Maiztegik.

Azpitartek hautagaitza aurkeztu zuen osoko bilkuran. "Geurea da babesik gehien lortu duen zerrenda, eta lan egiten jarraituko dugun bost zinegotzi zaldibartar izango gara", azaldu zuen.



Garaiko udalbatza berria, bilkuraren ondoren.

Gontzal Sarrigoitiak Erramun Osari eman dio aginte makila

Osak eskerrak eman dizkio orain arte alkate izandakoari

GARAI • J.D. / M.O.

12 urteko agintaldiaren ondoren, Herriko Taldeak galdu egin zituen hauteskundeak. Orain arteko alkatea ez zen zerrendan joan, baina zapatuko bilkurako protagonistetarikoa izan zen. Urteotan bere ondoan egon direnak gogoratu zituen berbaldian. Gainera, "zorte ona" opatu zion gobernu berriari.

Gero, EAJko Erramun Osari eman zion aginte makila. Jeltza-lea izango da alkate datozen lau urteetan. Alkate berriak berba politikak izan zituen Sarrigoitia-rentzat. "Eskerrik asko egindako lanagatik, bihotzez, barru-ba-rrutik", adierazi zuen.

EAJk 4 zinegotzi edukiko ditu datorren legealdian, eta Herriko Taldeak, 3.

anboto 
komunikabideak

**Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558**

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko ekainaren 14a
17. urtea - 768. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Gorette Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Garrastatxu eta Julian Rios elkar besarkatzen, inbestiduraren ondoren. Kepa Bordés

Ezkerreko gobernua osatuta, Durangon martxan da aldaketa

Lehen neurri lez, herritarrek eta elkarteak alkateagaz batzartu ahalko dira martitzenetan

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Aldaketa errealitate da. Ezkerreko gobernua martxan da Durangon. Udala zapatuan eratu zen, eta EH Bilduko Ima Garrastatxu inbestitu zuten alkate. Aldaketa bultzatu dutenen artean emozio handia bizi izan zen, eta plazan ere herritar ugari batu zen gobernu berriari

Garrastatxuren gestioaren oinarriak "elkarrizketa, gardentasuna eta partaidetza" izango dira

babesa erakusteko. EH Bilduko eta Herriaren Eskubideko kideek herritarren aurrean altxatu zuten aginte makila.

Inbestitzerakoan, Garrastatxuk eskerrak eman zizkien aldaketa posible egin dutenei: "Bereziki, historian lehenengoz emakume ezkertiar, feminista eta soberanista bat Durangoko alkate iza-

teko botoa eman duten guztiei". Emakumeak gogoan izan zituen, tartean bere ama, eta "Durangotik urrunduta egotera kondenatzen dituztenak".

Alkateak Herriaren Eskubidea gobernukidearen konfiantza eskertu zuen. "Zuentzat eta ordezkatzun duzuen guztiarentzat alkate baliogarria eta duina izatea espero dut", esan zien. Gobernutik irten den EAJrentzat ere izan zituen berbak: "Bidean sarri topo egitea itxaroten dut, Durangoren alde lan egiten". Ezkerreko gobernua osatu

Alkateagaz batzeko hitzordua aurrez eskatu beharko da, Herritarren Arretarako Zerbitzuan

arren, EAJk irabazi zituen maia-tzaren 26ko hauteskundeak, eta Mireia Elkoroiribek bere hautagai-tza aurkeztu zuen bilkuran, botoa

eman dietenei eta sistemari "errespetua" erakusteagatik. EAJren ideia nagusiak azaldu zituen, eta "Durango hobetzen jarraitzeko" eta adostasunak lortzen saiatzeko borondatea agertu zuen hautagai jeltzaleak.

Alkateagaz martitzenetan

Garrastatxuren esanetan, euren gestioaren oinarriak "elkarrizketa, gardentasuna eta partaidetza" izango dira. Eta, horretarako, lehen neurria aurkeztu dute as- teon: gura duten herritarrek eta elkarteek alkateagaz batzartzeko aukera izango dute martitzenetan, 08:00etatik 11:00etara eta 16:00eta- tik 19:00etara. Alkateagaz batzeko hitzordua aurrez eskatu beharko da, Herritarren Arretarako Zer- bitzuan. Garrastatxuren ustetan, "jende eta eragile asko ahotsik eta solaskiderik barik sentitu dira azken urteetan udalean", eta horre- gatik hartu dute lehen neurri hori. Gainera, irailetik aurrera auzo batzarrak egiten hasiko dira.



Alkate berria EAJko Mireia Elkoroiribe agurtzen. Kepa Bordés



Udal eraketa berria, datozen lau urteetarako. Kepa Bordés



Garrastatxuk herritarren aurrean dantza egin zuen, plazan. Kepa Bordés



Udaletxe aurreko plazan jende ugari batu zen gobernu berria babesteko asmoz. Kepa Bordés



Herriaren Eskubideko Neskutz Rodriguez, aginte makila eskuetan. Kepa Bordés

Alkateak herririk herri: hauexek izango dira Durangaldeko udaletako agintariak datorren legegintzaldian

DURANGALDEA • M.O.

Argitu da nortzuk izango diren alkate datozen lau urteetan. Legealdi berria martxan da, eta hautatu dituzte agintariak Durangaldeko 13 udaletan. 13 udaletatik 8 EAJk gobernatuko ditu, eta 5 EH Bilduk. 7 estreinatu egingo dira alkatetzan, eta 6k errepikatu egingo dute.

Aipagarria da, besteak beste, 13 alkatetik 4 bakarrik izango direla emakumeak. Oraindik ere errealitatean parekidetasunerako pausoak falta direla erakusten duen datua da. Lau emakumeak EH Bildukoak dira: Ima Garrastatxu, Idoia Buruaga, Lorea Muñoz eta Ainara Otxotorena.



MIKEL
GARAIZABAL

Abadiño (EAJ)

Garaizabal estreinatu egingo da Abadiñoko alkatetzan, EAJgaz. Hala ere, 23 urtegaz hasi zen politikan, eta bigarren alkateorde izan zen. Enpresa teknikaria da.



XABIER
AZKARATE

Atxondo (EAJ)

EH Bilduren 12 urteko agintaldiaren ondoren, EAJk berreskuratu du alkatetza Atxondon. Xabier Azkarate alkate izango da, lehenengoz. Aurretik erretiratutakoa da.



ORLAN
ISOIRD

Berriz (EAJ)

Orlan Isoirdek 8 urte daramatza Berrizko udal gobernuan, eta beste lau urtean jarraitzeko babesak eman diote herritarrek. Soziologian lizentziaduna da.



IMA
GARRASTATXU

Durango (EH Bildu)

Udal batean egongo den lehenengo aldia alkate lez beteko du. Herriaren Eskubideagaz batera osatuko du gobernuaren Garrantzakeren alderdiak. Kazetaria da eta hainbat instituziotan lan egin du.



IDOIA
BURUAGA

Elorrio (EH Bildu)

Orain 8 urte zinegotzi izan zen, eta azken lau urteak alkatetzan egin ditu Buruagak. Beste lau urtean jarraituko du, Herriaren Eskubidearen babesak jasota. Arte Ederretan lizentziaduna da.



ERRAMUN
OSA

Garai (EAJ)

EAJ Garaiko Udala gobernatzeraz bueltatuko da 12 urteren ondoren, eta Erramun Osaren eskutik egingo du hori. Euskaltzaindiko idazkariordea da, eta euskararen arloan lan egin izan du.



IÑAKI
TOTORIKAGUENA

Iurreta (EAJ)

Zinegotzi izan ondoren, 2007tik Iurretako alkate da Iñaki Totorikaguena, eta beste lau urtean ere horrela izango da, gehiengo osoa lortuta. Zuzenbidean lizentziaduna da.



LOREA
MUÑOZ

Izurtza (EH Bildu)

Azken legealdian izandako alkate kargua berretsiko du Lorea Muñozek. Aurretik ere izan zen alkate, 2007tik 2011ra, EAE-ANVren zerrendan aurkeztuta. Kutxazaina da ogibidez.



IGOR
AGIRRE

Mallabia (EAJ)

Orain lau urte, hiru botoren aldeagatik irabazi zituen hauteskundeak, eta aurten tarte hori 171 botoraz handitu du Igor Agirrek. Zentro teknologiko bateko langilea da.



AINARA
OTXOTORENA

Mañaria (EH Bildu)

EH Bilduk 2tik 26ra handitu du boto aldea aurten. Ainara Otxotorenak hartuko du Endika Jaioaren erreleboa. Herriko haurreskolako irakaslea da.



EGOITZ
GARMENDIA

Otxandio (EH Bildu)

EH Bilduk alkatetzari eutsio dio, EAJk aldea jan arren. Egoitz Garmendia karguan estreinatuko da. Ingeniari tekniko mekanikoa da, eta euskara irakasle ibili da.



JOSE LUIS
MAIZTEGI

Zaldibar (EAJ)

Jose Luis Maiztegik urte askoko esperientzia du zinegotzi lez, eta datozen lau urteetan alkate izango da. PSE-EEren babesagaz lortu du gehiengo.



ANDONI
AGIRREBEITIA

Zornotza (EAJ)

Gehiengo osoz irabazita, 2007tik bozeramaile eta azken legealdian alkate izan den Andoni Agirrebeitiak segituko du agintean. Gestio sistemetan aditua da.

Landakon, bidegorria "seguruagoa eta inklusiboagoa" bihurtuko dute

DURANGO • M.O.

Bidegorria "seguruagoa eta inklusiboagoa" bihurtzeko asmoz, obretan dabilta Landakon, 70.000 euroko aurrekontuagaz. Maiatzean hasi ziren lanak, eta abuzturako amaitzea aurreikusitako dute. Hiri Debekatuaren mapan puntu beltz lez identifikatuta dago eremua, eta baita 2017an diseinatutako hirigintza inklusiboaren ekintza planean ere. Hauek dira neurri batzuk: argiztapen handiagoa LED sistemagaz, ikusmena oztopatzen duten landaredia ordezkatzea, hiri-altzariak birkokatzea...

Astepe atzealdean, Francisco Ibarrako tunelean eta Askatasun etorbidean –estaziorantz– antzeko ekintzak aurrera eramango ditu udalak.

Durangoko adinekoen egoitza irisgarriago egiteko, 90.000 euro inbertituko dituzte

DURANGO • M.O.

Udalak 90.000 euro inbertituko ditu Adinekoen Udal Egoitza irisgarriago egiteko asmoz. Bainugelak indarrean dagoen irisgarritasun-araudira egokitu, igarotzeko ateen neurriak zabaldu, lurzoruak ordezkatu eta ekipamendu berriak ipiniko dituzte. Uztailean hasiko dituzte lanak. Aurreko gobernu taldearen ekimena da.

Zigilurik gehien

Estatu osoan irisgarritasun unitertsalaren zigilua duten eraikin gehien dituen udalerrria da Durango. Aurrerantzean, Arte eta Historia Museoa, Tabirako futbol zelaia eta San Agustin Kultur Guneko eraikinak ere modu progresiboan egokitzea aurreikusita dago.

Dendak Bai elkarteak Durangoko merkataritza bultzatzeko kanpainaren fase berria aurkeztu du

Merkatariak, tabernariak eta bezeroak protagonista dituen bideo bat zabaltzen hasi dira sare sozialetan

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Dendak Bai elkarteak Durangoko Guk Durango kanpainaren bigarren fase komunikatiboa landu du merkataritza bultzatzeko, eta astelehenean hasi zen zabaltzen. Merkataria, tabernaria eta bezeroak protagonista dituen bideo bat hedatzen hasi dira sare sozialetan, herritarrak kontzientziatzeko asmoz. "Herria biziberritzea eta denok batera lan egitea" dira kan-

eskaintzen dituzte, tokikoak ez diren komertzioetatik bereizten dituzten balioak direlarik.

Alderdien babesa

Aipaturiko batasun hori topatu

guran, asteleheneko aurkezpenean udaleko hainbat kargudun ere egon ziren kanpaina babesten, merkatariekin batera. EH Bilduko, Herriaren Eskubideko eta EAJko ordezkariak egon ziren, Ima Ga-

rrastatxu, Julian Rios eta Mireia Elkoriribe liderrak tartean.

Dendak Bai merkataria elkarteak udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz aurrera eramango du kanpaina.

**"Herria biziberritzea
eta denok batera
lan egitea" dira
kanpainaren helburuak**

painaren helburuak, Alex Palacios elkartearen presidentearen esanetan. Guk Durango lema bezeroek ere erena egitea gura dute.

Dendak Baikoen esanetan, euren komertzioek "gertutasuna, konfiantza eta profesionaltasuna"



Astelehenean aurkeztu zuten kanpainaren fase berria, Kuruzesantu musean.

San Antonio ikastetxean plastikoaren erabilpena murrizteko kanpaina landu dute

Etxeko plastikoagaz eskulanak egin dituzte, ibaiak eta itsasoak babesteko proiektuan

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Ikastetxean eta herrian plastikoaren erabilpena murrizteko helburuz, Plastik-OUT izeneko sentsibilizazio kanpaina landu dute San Antonio ikastetxean. Aspalditik hainbat hondakin birziklatzen dute ikastetxean, eta orain "harago" joateko pauso bat eman dute, Oier de Arriba irakasleak azaldu duenez. Ikasle eta langileen etxeetan asteburu batean plastikoaren kontsumoa gutxitzea zen asmo zeha-



Ikasleei gelarik gela azaldu diete proiektua.

tza; ikasleei gelarik gela azaldu diete proiektua, eta gurasoei zein langileei ere bidali diete mezua, kanpainara batzeko intentzioagaz. Etxean batutako plastikoagaz eskulanak egin dituzte ikastetxean.

**Ikasle eta langileen
etxeetan asteburu batean
plastikoaren kontsumoa
gutxitzea zen asmo zehatza**

Durangoko erakundeekin eta alderdiekin ere kontaktuan ipini dira, proiektua herrian zabaltzeko. Eusko Jaurlaritzaren Aztertu programa barruko Ekinaren Astea garatu dute.



Tentsio handiko goiza metalgintzako grebaren laugarren egunean, bide mozketak eta atxiloketekin

Durango 5.000 lagun inguru batu ziren atzo, sindikatuek lan hitzarmena aldarrikatzeko deitutako manifestazioan

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Tentsio handiko eguna izan zen atzokoa Durangaldean, metalgintzan deitutako greba dela eta. Goizean goizetik, grebalariek bidea moztu zuten Trabakuan (Mallabia), Kanpazarren (Elorrio) eta N-634 errepidean, Zornotzako Montorra auzoan. Azken leku horretan, Ertzaintzak lagun bi atxilotu zituen. Ertzain bati eraso egin izana egozten diete grebalariei. Bestalde, Zornotzan, Aludium enpresaren atarian, gazte bat zauritu egin zen ertzainen eta piketeen arteko liskarretan. Sindikatuek gogor kritikatu dute Ertzaintzaren jarrera: "Patronala beldur da ondo gabiltzalako. Bestela, ezin da ulertu gaur Durangaldean gertatu dena. Patronalak bere piketeak bidali ditu langileak atxilotzeko", azaldu zuten sindikatuek. Atzoko manifestazioaren amaieran, Landako Gunean ordu erdian eserita geratu ziren gertatutakoa salatzen. Protestetan, 600 bat grebalarik piketeetan parte hartu zuten.



Santa Ana hasi eta Durangoko kale nagusiak zeharkatu zituzten atzo beharginak.

Manifestazio jendetsua

Metalgintzako grebalariek Durangoko kaleetan zabaldu zuten euren aldarria atzo. Izan ere, herrialdeetako manifestazioetako bat Durangoko Santa Ana plazatik abiatu zen.

5.000 lagun inguruk parte hartu zuten mobilizazio jendetsu honetan.

Gaur, ostera, Bizkaiko grebalariek Bilbon elkartuko dira. Horrela, Bizkaiko metalgintzak deitutako grebak bosgarren eguna izango du.

Atzoko protestetan, 600 bat grebalarik piketeetan parte hartu zuten

"Patronalak bere piketeak bidali ditu langileak atxilotzeko", diote sindikatuek

Pentsiodunek neurriak eskatu dizkiete politikariei udalak eratu berrikan eginiko manifestazioan

Durango eta lurretako pentsiodunek "promesak betetzeko ordua" dela aldarrikatu zuten protesta bateratuan



Durango eta lurretako zutabeak Madalenan elkartu ziren.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Durango eta lurretako pentsiodunek manifestazio bateratua egin zuten astelehenean. Durangarrek udaletxeko plazatik irten zuten, eta iurretarek, Askondotik. Zutabe biak Madalenan elkartu ziren, eta bertan egin zuten amaierako ekitaldia.

Udal gobernua eratu berrikan eta Espainiako Gobernuaren osatzeko prozesuan dauden honetan, pentsiodunek konpromisoak betetzea exijitu zieten politikariei. "Bada ordua promesak gauzatzeko. Nahikoa da aberastasunaren %13 pentsioetarako bideratzeagaz, Frantziar, Italian zein Austriar egiten duten moduan", esan zuen Maria Pilar Mintegia pentsiodun iurretarrak.

Santamañak iragarriko dituen kartel irabazlea aukeratu dute

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Jai Batzordeak aste honetan jakinarazi du zein kartelek iragarriko dituen santamaña jaiak. Bestalde, jaietan izango diren kontzertu batzuen berri ere eman dute: uztailaren 20an, Sara Hebe, Skakeitan eta Nogen taldeak arituko dira.



Andra Mari guraso elkarteak antolatuta, asteburuan kanpaldia egingo dute Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Andra Mari guraso elkarteak antolatuta, herriko plaza kanpaleku erraldoi bihurtuko dute asteburuan. Zapatu arratsaldean, kanpin-dendak ipiniko dituzte plazan, eta gaztetxoek begirako askotariko ekintzak izango dira; 'altxorrenen bila' jokoa eta antzerakoak. Ondoren, elkarregaz afalduko dute. Domeka goizean ere denentzako ekintzak izango dira, eta eguna San Juan suagaz erramatatuko dute, 20:00etan.

Erabilera anitzeko gune berriak leihotzeko gehiago ipintzen ari dira Izurtzan

IZURTZA • J.D.

Erabilera anitzeko gune berriko lanak aurrera doaz apurka. Maiatzean zehar hasi zituzten. Egunotan, leihotzeko gehiago ipintzen ari dira, bai aparkalekura ematen duen alderantz, bai tuneleko alderantz. Horrela, azpiegitura berriak argitasun natural handiagoa izango du. Horrez gainera, eraikin oso ondo isolatzeko ere ari dira lanean. Lan horiek amaitu eta gero, gune berriko barrualdea atontzen hasiko dira.

<< PLAZAREN PLAZERA >>



ERROTA

Intxaurrondo kalea, 54
Durango
Tel.: 946 216 021

Taberna zabalik dago
07:00etatik 23:00etara.
Besteak beste, gosariak,
pintxoak, entsaladak,
eta ogitartekoak eskaintzen
ditugu. Terraza ederra,
Tabira auzoaren erdigunean.



TABIRA ETXE

Tabira kalea 33 - Durango
Tel.: 94 681 02 41

Taberna zabalik
Astelehenetik igandera.
**Astelehenetan sukaldea
itxita**
Bazkari zein afariak ematen
ditugu.



PLATERUENA

Landako etorbidea, 4A
Durango
Tel.: 946 030 300

Uda honetan gozatu
Plateruenako doako
terraza zerbitzuaz: etxeko
irabiatuak, izozkiak,
kafea, garagardo karta...
eta asteazkenetan jazz
emanaldiak iluntzeetan.



AI AMA

Josemiel Barandiaran
kalea 2 - Durango
Tel.: 94 681 55 72

Ordutegia
Astelehenetik ostiralera
09:30etatik - 23:00etara
Asteburuetan
11:00etatik - 02:00etara



INTXAURRE ELKARTEA

Kurutziaga, 52
Durango
Tel.: 946 200 864
Gosariak 8:30etatik aurrera,
astelehenetik barikura. Pintxoak.
Terraza 10:00etatik aurrera.
19:00etatik aurrera: besteak
beste, entsaladak, ogitartekoak,
izozkiak eta kafea. Mahai
zerbitzua eta giro euskalduna.



ABARKATERUENA

Iturritxo, 6 - Txanporta
plaza - Abadiño
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta
asteburuetako menu
bereziak. Goizetik
pintxoak.
Giro oso ona.



GORA-GORA

Arriluzea, 2
Durango
Tel.: 946 811 384

Plan bikaina Tabirakoa
udan. Terrazaz, giroaz,
zerbitzuaz, edariaz eta
janari gazi zein gozoez
gozatzeko aukera
bikainarekin!
Zatoz gugana!



HOTEL OLAJAUREGI

Kurutziaga, 52
Durango
Tel.: 946 200 864

Hotel Olajauregi
tabernadun terraza irekiko
du, ekainaren 24tik aurrera.
Zatoz gurera eta dastatu
terrazan eskaintzen
ditugun afariak!

Izar enpresak mundu osoko bezeroak gonbidatu ditu urteurrena ospatzeko

ZORNOTZA • J.D.
Aurten 50 urte bete dira Zornotzako Izar enpresa nazioartera zabaldu zenetik, eta ekainaren 28an ekitaldi bat egingo dute urteurrena ospatzeko. Egun horretan, bost kontinenteetako ehun bat bezerok bisitatuko dute Zornotzako enpresa.
Ekintza instituzionalean, 1969an proiektu honi hasiera eman zioten protagonistak omenduko dituzte. Gonbidatu garrantzitsuen artean, Benoit

Besteak beste, Benoit Girondel korrikalari frantziarrak mendi martxa bat gidatuko du

Girondel korrikalari profesional frantziarra azpimarratu daiteke. Hainbat bezero, langile eta Zornotzako kirol taldekidek lagunduta, Belatxikietarako mendi martxa bat gidatuko du Girondelek.

Zornotzako arbolen egoera aztertuko dute, Zelaieta parkeko bat jausi ostean

Aurreko ikerketa batek arbolak "sano" zeudela zioen arren, beste bat aginduko du udalak



Behargin bat Zelaieta parkean jausitako arbola zatitzen.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO
Orain aste bi, Zelaieta Parkeko arbola bat jausi egin zen ustekabeen. Oinezkoak dabiltzan alderantza jausi zen, baina gertaerak ez zuen zauriturik eragin eta udaleko langileek berehala zatitu eta erretiratu zuten ezki arbola.
Jazoera horren aurrean, udalak iragarri du neurriak hartuko dituela. Zehazki, udalerrri osoko zuhaitzen egoera zein den aztertuko dute.

Ezki arbola oinezkoak dabiltzan aldera jausi zen, baina ez zuen zauriturik eragin

ko dute eta Zelaieta parkeko arbola jausi izanaren arrazoiak zein den ikertuko dute.

Aurreko ikerketa
Aurreko legegintzaldian, herriko parke publikoetan dauden arbolen egoeraren gaineko ikerketa bat agindu zuen Zornotzako Udalak. Ikerketa horretako txostenak arbolak "sano" zeudela zehaztu zuen, udalak publiko egindako ohar bategan jasotzen denez. Baina, orain, Zelaieta parkean gertatu denaren ondoren, udal agintariek beste ikerketa bat egitea erabaki dute.

Haurren minbiziaren aurkako elkartasun maratonia egingo dute Elorrion eta Durangon

Alakranes del Norte eta Aspanavos elkarteek antolatu dute jaialdia

ZALDIBAR • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Umeen minbiziaren aurkako borrokan, Alakranes del Norte elkarte zaldibartarrak eta Aspanavos elkarteak maratoni solidarioaren beste edizio bat antolatu dute Elorrion datorren astebururako. Ekainaren 29an izango da, zapatuan, baina barikurako ere kontzertuak

antolatu dituzte Durangon, Plate-ruena Kafe Antzokian.
Zaldibarko elkarteko Andoni Meso kideak jakitera eman duenez, jendea kontzientziatzeaz gainera babes ekonomikoa lortzea da maratoniaren helburua. "Bertaratzeko deia egiten diogu jendeari, arrazoi on baten aldeko kontu bat

da eta. Umeak gure etorkizuna dira eta ezinbestekoa da umeen minbiziaren aurka borroka egitea", adierazi du Mesok.
Ekainaren 29koa egun osoko jaia izango da. Goizean, elkartasun tonbolagaz emango diote hasiera egunari, eta Sugoi taldearen kontzertuagaz amaituko dute.



Haurren minbiziaren aurka Durangon egindako jaialdiko irudia.



Berriztik, elkartasuna Palestinako errefuxiatuen saskibaloit taldeari

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Ekain amaieran, 'Real Palestine Youth' taldeko 11 neska etorriko dira Euskal Herrira. 2017an Palestinako errefuxiatuen alde Erroman eta Beiruten sortutako proiektuaren hirugarren edizioa Euskal Herrian egingo dute aurten, Oihana Alberdi berriztarrak bultzatuta.
Ekainaren 30ean, Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaietan izango dira, eta, dirua batzeko asmoz, hainbat ekimen antolatzen dabilta. Bihar, esaterako, Elorrioko eta Zaldibarko taldeek saskibaloit partidu solidarioa jokatuko dute Elorrioko kiroldegian. Partidua 11:00etan hasiko da.

Atxondoko bidegorrian gizalegez jokatzeo kartelak ipini ditzute

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Udaberri eta uda sasoian, erabiltzailez lepo egoten da Atxondoko bidegorria. Astebururo ehunka lagun ibiltzen dira oinezbidean, eta David Cobosek, joan zen asteburura arte jarduneko alkatea izan zenak, baserritarren "hainbat kexa" jaso dituztela eta horregatik seinaleak ipintzea erabaki zutela jakitera eman zuen, ohar bitartez. "Baserritar eta abeltzainen kexak jaso ditugu, hainbat bisitariek ez dutela bidegorrian gizalegez

Apatan seinaleak ipini dituzte, bisitarien bidegorriaren sarrera errazago topatzeko

jokatzen esanez", adierazi zuen Cobosek.
Horrez gainera, bisitarien bidegorria errazago topatzeko, Apatako sarreran ere seinale bat ipini dutela nabarmendu zuen Cobosek.

Asteburuan zehar,
Momoitio auzoko
jaiak ospatuko
dituzte Garain

GARAI • MARKEL ONAINDIA
Trumoitte kultur elkarteak antolatuta, Momoitio auzoan San Joan jaiak ospatuko dituzte asteburuan zehar, bertako patrioiaren omenez. Domekan, goizean goizetik hasiko dituzte ekintzak. 10:30ean, meza egingo dute eta, meza ostean, txopoa altxatuko dute jaiei hasiera ofiziala emateko. Jarraian, dantza saioa eskainiko dute, eta eguerdi partean, herritarrek paella lehiaketan parte hartuko dute. 15:00etan aurkeztu beharko dituzte paellak, eta lehenengo lau onenek izango dute saria. Arratsaldean, igel txapelketa jokatu dute, eta 19:00etan, San Joan sua isiotuko dute.
Astelehenean, San Joan egunean, meza egongo da, 12:00etan.

Eitzaga auzoan
ekainaren 28an
hasiko dira San
Pedroak ospatzen


ZALDIBAR • A.M.
Ekainaren 28an altxatuko dute Donien Atxa Eitzagan, 19:30ean. Ordu horretatik aurrera, festa nagusituko da bertan. Txokolatada herrikoia egingo dute bertan. Zapatuan, gastronomia izango da protagonista: paella eta tortilla txapelketak egingo dituzte, saiheskia erreko dute eta herri bazkaria eta afaria egingo dituzte. Domekan, jaiei amaiera emateko, Txindurri dantza elkarteak erakustaldia egingo du, besteak beste.

UEUko ikastaroetan
parte hartzen dutenek
diru-laguntza eskatu
dezakete Mallabian

MALLABIA • J.D.
Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroren batean parte hartzen dutenek diru-laguntza eskatu dezakete udalean. Irailaren 30a da eskaerak egiteko azken eguna. Laguntza jaso ahal izateko baldintzetako bat ikastarorako asistentzia gutxienez %85ekoa izatea da. Laguntzaren zenbatekoa honako hau da: matrikularen kostuaren laurdena. Langabeen eta soldatarik bako ikasleen kasuan, matrikularen erdia.

Datorren urriaren 12an, neskek Dantzari Dantza
egingo dute Iurretako Urrijenan, lehenengoz

1989an berreskuratu zuten Urrijena, bost urterik behin herriko dantzari guztiei plazan dantzatzeko aukera eskaintzen dien eguna



Urrijenerako lehenengo entsegua ekainaren 27an egingo dute. Udaren ondoren elkartuko dira berriro ezpatadantzariak, irailean.

DURANGO • AITZIBER BASAURI
Orain bost urte ospaturiko Urrijenan, lehenengoz parte hartu zuten emakumeek, gorulari dantzekin. Aurten, neskek Dantzari Dantza ere egingo dute, lehenengoz. Horixe da datorren Urrijenako nobedade nagusia. Horrez gainera, domekan beharrean, dantzariak zapatuan ospatuko dute eguna, jaiari osotasun bat eman guran. Urriaren 12an, Iurretako 350 bat dantzari batuko dira.

15etik 77 urtera bitarteko dantzariak irtengo dute plazara. "Hala ere, 85-90 urte dituzten ezpatadantzariak ere parte hartuko dute kalejiran, gerraosteko taldean dantzatzeko zirenek", azaldu du

Dantza saioa goizean izango da, plazan, eta dantzariak Askondon batuko dira bazkaltzeko

Urrijena antolatzen dabilen batzordeko Unai Esturo kideak. Eneko Barroeta, Larraitx Zabala eta Izaro Elorza ere izan dira aurkezpenean. Denen argazkia atera eta gero, dantzariak kalejira egingo dute herrian zehar, plazaraino. Han izango da dantza saioa. Dantzari Dantzaren zati bat eta Gorulari dantzak egingo dituzte, eta, gero, Estanpa abestuko dute. Amaitzeko, Aurrekua eta atzezkuia egingo dituzte. Dantzari Dantzaren 18 talde batuko

dira, eta 5 edo 6 dantza mistoetan. Saioa amaituta, 65 urte egin dituzten dantzariak omenduko dituzte. Ospakizunak Askondon jarraituko du. Bazkaltzeko elkartuko dira dantzariak eta, ondoren, erromerian. "Egun ederra" pasatzea da helburua. Antolaketa lagundu gura dutenak ondoetorriak izango direla esan dute aurkezpenean: "Eta bateren batek parte hartzeko abisua jaso ez badu, jar dadila kontaktuan gugaz".

Abadiñoko igerilekuetan lanuzteak hasi dituzte
Bizkaiko kirolguneetako hitzarmen berria sinatzeko

ELA, LAB eta CCOO sindikatuak deitu dute lanuzteetara; "30 urteko hitzarmen iraingarria" dago indarrean

ABADIÑO • A.M.
Denboraldiko lehenengo egunagaz batera, Abadiñoko kiroldegiko langileek lau orduko lanuztea egin zuten ekainaren 15ean. ELA, LAB eta CCOO sindikatuak deitu dute lanuzteetara, izan ere, sindikatuen esanetan egoera larria da. "30 urte baino gehiago daramatzagu hitzarmen kolektibo iraingarriekin, eta ez diegu utziko adarra jotzen. Sektorearen egoera larria da", salatu zuten langileek kontzentrazioan. Gero, ekainaren 18an eta 19an ere egin zituzten lanuzteak, lau ordukoak, txanda bitan banatuta. Ekainaren 26rako, beste lanuzte batera deitu dute, eta hitzarmen kolektibo berria sinatu ezean, egun osoko lanuztea egingo dute ekainaren 27an.

Herritarrei babes eske
Protestetan, langileek zerbitzu publikoen alde jartzeko eskatu diete herritarrei. "Dei egiten diegu herritarrei, baldintza duin batzuk

Hitzarmen kolektiboa sinatu ezean, ekainaren 27an egun osoko lanuztea egingo dute

eskatzeko egiten ari garen mobilizazioak babestu ditzaten; hau ez da negozio bat, zerbitzu publiko bat da, eta erakundeek zerbitzuaren zein hau ematen duten beharginen lan baldintzak bermatu behar dituzte", adierazi dute.



Abadiñoko igerilekuetako langileen protesta.



Hareek denporak!

Durangoko merkatu plaza, Zubiaurretarren begietan

Durangoko merkatu plazak tradizio historikoa du. Gaur egun eraikin bat eduki arren salmentarako, saltzaileak Andra Marian egoten ziren sasoi batean. Adibidez, 1937ko bonbardaketa egunean merkatua zegoen Andra Marian. 1901ean Zubiaurre anaiek *Photographien* albumean argitaratutako argazki honek erakusten duenez, Andra Maria basilikaren inguruan jende ugari batzen zen baserriko pro-

duktuak erosteko. Garain jaiotako anaia artistek une hori betikotu zuten, saltzaileak kamerari zuzen-zuzenean begira zeudela.

Ramon eta Valentin Zubiaurre anaiek euren margolanengatik egin ziren ezagun, baina argazkiak eta filmak ere egin zituzten. Horietako asko Bilboko Arte Ederren Museoan daude ikusgai, eta sorta bat Garaiko Elizabarrin ere bai asteburuetan. **M.O.**

Durungaldea asteen

Legebiltzarrak erizaintza zerbitzua indartzeko eskatu dio Osasun Sailari

Durungaldea | Osakidetza Durangoko etenik gabeko arreta gunean erizain kopurua igo dezala eskatu dio Legebiltzarrak Osasun Sailari. EH Bilduk prentsa oharrean adierazi duenez, "Durungaldean osasun zerbitzuen bilakaera ez da eskualdearen eboluzio demografikoaren arabera izan". Lan txanda bakoitzean presentziazko erizain bi egon daitezkeen egin dute eskaera, eta Legebiltzarrak onartu egin du EH Bilduren proposamena.

Libe Renteriak aurtengo selektibitateko bosgarren notarik altuena atera du

Zornotza | Libe Renteria zornotzarrak 9,7ko nota atera du aurtengo selektibitatean, Euskal Autonomia Erkidegoko bosgarren notarik altuena. Ibaizabal Ikastolako ikaslea "pozarren" dago lortutako emaitzagaz. Zornotzarrak bioteknologia ikasi gura du, eta Ibaizabal Ikastolan bizitako urte biak "oso onak" izan direla eta bertan dagoen "giro ona" nabarmendu gura izan du.

Ziarreta auzoaren atzeko parkean zegoen slack-linea ostu dutela salatu dute

Atxondo | Hainbat gurasok, auzolanean, umeentzako gune berri bat atondu zuten Ziarreta auzoaren atzealdean, umeek jolaserako "eremu naturalago" bat izateko. Parkean slack-line bat ipini zuten, eta, ANBOTOr jakinarazi diotenez, ostu egin dute. "Pena eta desilusia hartu ditugu, parkeko elementu bat desagertu dela ikusi dugunean. Penagarria eta lotsagarria iruditzen zaigu", esan dute.



Iurreta LHkoek ibilgailu elektrikoek teknikariak prestatzeko Euskelec lehiaketan parte hartu dute

Iurreta | Iurreta Lanbide Heziketa ikastetxe ikasleek ibilgailu elektrikoek etorkizuneko teknikariak prestatzeko Euskelec 2019 lehiaketan parte hartu dute. Erkidegoko lanbide heziketako 17 ikastetxetako

200 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute. Proiektuaren helburuak lortzen laguntzeko erronketan oinarritutako metodologiak bultzatu dituzte. Automozio sektorean dauden ezagutza tekniko eta gaitasun-

ak hobetzea eta mugikortasun jasagarria bultzatzea ere izan dira helburuak.

Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordetzak eta Tknikak Alterity enpresak antolatu dute lehiaketa.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA - Izen-abizenak - telefonoa - helbidea - Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOr irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



GARA

PAPEREZKO
EDIZIOA

GARA egunkaria desagertzeko arrisku larria dago!!!

Izan ere, Gizarte Segurantzari 3 milioi euro baino gehiago ordaindu behar baitio bi urteko epean!!!

GARAK 10.000 pertsona solidarioren laguntza behar du desagertzea ez dadin!!!

GARARI laguntzeko harpidetza mota ezberdinak daude.

Beraz, mesedez, egin itzazue zeuen harpidetzak hemen: **943 316 999** telefonoan / Interneten bidez helbide honetan: **www.naiz.eus**

JAIIAK

ATXONDO 2019ko EKAINA



www.atxondo.eus

*2019ko San Pedro jai
zoriontsuak opa deutsueguz!*



Axpeko jaiak

Ekainak 21, barikua

18:00 “ESKU PILOTA PARTIDUAK” ILUNKERAN SAIHETS PINTXOAK eta ATXONDOKO HARRERA HERRIRA-koek gertatutako jatekoa **SALGAI**.**21:00** NAGUSIEN PILOTA PARTIDUAK.**22:00** Txopo jasotzea.**23:00** RANTXERAK: **PURO RELAJO**. Amaitutakoan, berakatz zopa eta txokolatea. Ondoren **DJ BULL**.

Ekainak 22, zapatua

11:00 GAZTEEN MENDI IRTEERA.**17:00** Mus txapelketaren hasiera.**18:00** BizikletaN, “KRONOIGOERA”.

Arratsaldean, bakailaoa pil-pilean eta tortilla txapelketa.

OHARRA! Partaide bakoitzak behar dituen osagai guztiak ekarri beharko ditu.

Bakailao txapelketako diru sariak berdina izango dira partaide guztientzat.

Kazola bakoitzak gutxienez 8 xerra izango ditu. Bestela, txapelketatik kanpo

geratuko da. Irabazleak diru sari berdina, txapela eta garaikurra izango ditu.

Sariak gazteentzat eta nagusientzat egongo dira. Aurkezpen ordua 20:45 izango da.**HERRI AFARIA:** Parte hartu dutenek euren lagun taldeagaz frontoian afaldu ahal izango dute. Jai batzordeak ogia, postrea eta kafea ipiniko ditu.**22:30 EZTA IZENGOKI!** Ondoren, erromeria **LUHARTZ** taldeagaz.

Ekainak 23, domeka

“GOIZEAN ZEHAR LEHENAGOKO JOLASEN ERAKUSKETA”.**11:30** Meza nagusia. Atxondoko **ANDASTO** dantza taldea.**13:00** Mus txapelketaren amaiera.**13:00** NESKA GAZTEEN PILOTA PARTIDUAK.**17:00** UMEEN JOLASAK. (Denbora ona eginez gero, ur jolasak antolatuko dira). Ondoren, txokolatada.**20:30** SAN JOAN SUA.Ekainak 24, astelehena | **SAN JOAN EGUNA****11:30** Meza nagusia. Ondoren, **Igel txapelketa** Gero, herriko **jubilatuentzat luntxa**.**17:00** Briska txapelketa; hasiera eta amaiera.**Apatako jaiak**

Ekainak 22, zapatua

8:30 Axpeko mendi **martxa**, ibilbide luzea. Apatako plazatik.**11:00** Mendi **martxa**, ibilbide laburra. Axpeko plazatik.

Ekainak 27, eguna

14:30 Jubilatuen **bazkaria**. Goibegoen.**17:00** Jolas **librerako gune ibiltaria**. Buru eta Bihotz taldeagaz. Plazan.**18:30** Txopo **txikiaren prestaketa**. Gaztetxean.**19:30** Txopo txikiagaz eta handiagaz **kalejira**. Deustuko dultzaineroek girotuta. Gaztetxetik plazara.**20:00** Txopoa jasotzea.**20:30** **Pregoia**.**21:00** **TALKA**. Bertsio talde akustikoa. *Arratsaldean zehar pintxo poteoa txosnan.

Ekainak 28, barikua

“GOIZEAN ZEHAR LEHENAGOKO JOLASEN ERAKUSKETA”**17:00** “**Pirata garrapata**” ikuskizuna. Frontoian.**20:00** Patata **tortilla topaketa eta bakailao txapelketa**. Frontoian.**21:00** Bakailaoaren aurkezpena eta herri **afaria**.**23:00** **Garilak 26**. Erromeria.Ekainak 29, zapatua | **MOZORRO EGUNA****10:00** Diana txistulariekin.**11:30** Biribil zirku eskola **ibiltaria**. Ondoren, tailerreko parte-hartzaileekin ikuskizuna.**14:30** Munduko **arrozen topaketa**.**18:00** Mus txapelketa. (Penalty, Gazteleku eta Itziar tabernetan).**19:00** **Kalejira-poteoa**. Matraka elektrotxarangagaz. Plazan.**22:00** Rock kontzertua. **The Van** eta **Mocker´s**.**23:30** Deabruen **antzerkia**. Diablos autonomos de Korneya-ren eskutik.

Ekainak 30, domeka

11:30 Igel txapelketa. (Itziar tabernan).**12:00** Dantzak plazan.**17:00** Munduan **berbena**. Txatxilipurdiren ikuskizun parte-hartzailea.**18:00** **Taloak**. Plazan.**19:00** **Pilota partiduak**. Frontoian.**21:00** Txopoa botatzea eta **jaiei agurra**.akebaso
akebasorestaurante.com*Jaietan ere asteburuetako menuak eskaintzen ditugu!
Zatoz gurera, eta ondo pasa San Pedroetan!*

San Juan auzoa 16, Axpe

akebaso@akebasorestaurante.com

94 658 20 60

ZUNTZ MOLDATUZKO ONTZI
BIODEGRADAGARRI
ETA BIRZIKLAGARRIAK

www.soul-cemosá.es

cemosa
GRUPO CELULOSAS MOLDEADAS, S.L.Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 94 623 17 17 - Faxe: 94 623 17 99ANAIAK, s.a.l.
AROTEGIA - TEILATUGINTZA

Martzaa auzoa, z/g - Atxondo - Tel./Faxe: 946 231 497

Migratzaileak babesten dituen Atxondoko Harrera Taldeak jaurtiko du Apatako jaiei hasiera emateko txupinazoa

Harrera Taldekoek prestatu duten testuaz gainera, uneotan herrian dauden migratzaileek ere irakurriko dituzte esaldi batzuk pregoian

TXUPINAZOA • MARKEL ONAINDIA

Otsailetik hona, migratzaileengana elkartasuna erakusten duen ekimen berezi bat martxan dute Atxondon. Gerratik eta pobreziatik ihesi datozen migratzaileak babesteko, Harrera Taldea sortu zuten hainbat herritarrek, eta egindako lan horrek errekonozimendu publikoa izango du. Izan ere, taldekoek, migratzaileekin batera, Apatako

Euren herrialdeko jatekoa prestatu eta herritarrei dastatzeko eskainiko diete Axpeko jaietan

jaietako txupinazoa jaurtiko dute. Mikel Corrales taldekideak azaldu du eurek prestatu duten testuaz

Mikel Corrales:
"Migratzaileek dituzten beharrianen arabera laguntzea da bilatzen duguna"

gainera, uneotan herrian dauden migratzaileek ere irakurriko dituztela esaldi batzuk balkoitik.

Bestalde, asteburu honetan bertan Axpeko jaietan ere parte hartuko dute migratzaileek; besteak beste, euren herrialdeko jatekoa prestatu eta herritarrei eskainiko diete dastatzeko.

4 senegaldar eta 2 marokoar
Otsailaren 7an etorri ziren lehenengo migratzaileak Harrera Taldearen babespera, udalak utzitako

Axpeko aterpetxera. Senegalgo hiru lagun eta Txadeko bi izan ziren. Azken hauek asiloa eskatzeko aukera dute, eta, horregatik, CEA-Rek Oñatin duen egoitzara joan ziren Atxondotik. "Migratzaileek dituzten beharrianen arabera laguntzea eta dinamikoa izatea da bilatzen duguna", esan du Corralesek. Gero, beste marokoar bi ekarri zituzten Jerez de la Fronteratik (Andaluzia, Espainia), hango talde batez elkarlanean. Orain, lau senegaldar eta marokoar bi daude bertan.

Integratzen laguntzen

Aterpea ematetik aparte, herrian eta gizartean integratzeko laguntzen diete Harrera Taldekoek. Herriko zenbait boluntarioren artean,

lau egunetan eskolak ematen dizkiete, gaztelania erakusteko. Ordu bi eguneko. Irailera begira, Lanbideko edo Helduen Hezkuntzako Ikastetxeko ikastaroren batean apuntatzeko laguntzen dabilta. Bestalde, oraingoz paperik ez edu-

Herriko zenbait boluntarioren artean eskolak ematen dizkiete, gaztelania erakusteko

kitzera, lan txikiak topatzen ere badabilta. "Eurek aktibo mantentzea eta ekonomikoki inizatiba hartzea gura dugu", esan du Corralesek. Harrera Taldekoek jatekoa lortzen diete, jendearen bitartez eta taldea-

ren diruagaz finantzatuta, baina ez diete dirurik ematen zuzenean.

Axpeko aterpetxera ume sahararrak etorriko dira orain, Hama-

Jatekoa lortzen diete, jendearen bitartez eta taldearen diruagaz finantzatuta

dako Izarrak elkartearen eskutik. Hori hitzartuta zuten, eta, hori dela-eta, migratzaileak Apatako Maisuen Etxean egongo dira, hiru hilean. Gero, irailean, berriro Axpera bueltatu ahal izatea da euren intenzioa. Horretarako, udalagaz batzartuko dira, akordioa lortzeko asmoz.



U3 Arkitektura Teknikoa

J.A. Agirre Lekube, 10
48291 Atxondo
Tel.: 946 201 523 / 627 575 583
Faxa: 946 819 061


E-mail: info@u-3.es

Eraikuntza-obra

Proiektuen kudeaketa osoa
Obra berria, birgaikuntza,
zaharberritze lanak eta legalizazioak

BURDINAK, S.L.
EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK

Artia indus. ATXONDO Tel.: 946 583 164 Faxa: 946 583 416



Puro Relajo, DJ Bull eta Luhartzen erromeria Axpeko sanjoanetan

Hainbat herritarren parte-hartzeagaz, Axpeko Jai Batzordeak Ezta Izengo ekitaldi berezia antolatu du zaturako

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Axpen, ekitaldiz beteriko asteburua prestatu dute San Joan jaiak ospatzeko. Gaur hasiko dituzte jaiak. 22:00etan, txopoa jasoko dute eta, gero, Puro Relajo rantxera taldearen eta DJ Bull-en kontzertuak hasiko dira. Horien aurretik, esku pilota partiduak jokatu dira.

Zapatuan, 11:00etan, gazteen mendi irteera egingo dute. Arratsaldean, mus txapelketa, kronoigoera eta herri afaria egingo dituzte. 22:30ean, hainbat auzotarren artean antolatutako Ezta Izengo ekitaldi berezia egingo dute. "Azken hiru urteetan, albistegi bat egin izan dugu urtero. Baina

kideak. Ekitaldiak hainbat gonbidatu izango dituela eta umoretsua izango dela nabarmendu dute

Zapatu arratsaldean, mus txapelketa eta kronoigoera egongo dituzte. Gero, afari herrikoia

Jai Batzordeko kideek, eta bertaratzeko deia egin diote jendeari. Ekitaldia amaitu eta gero, Luhartz taldearen erromeria izango da.

San Joan bezperan, umeen antzinako jolas eta tresnen erakusketa egingo dute Axpen

Bestalde, San Joan bezperarako, umeen antzinako jolas eta tresnen erakusketa antolatu dute. "Antzinako tresnen erakusketa izango da, baina, batez ere, umeen lehenagoko jolas eta tresnak erakutsiko ditugu", esan du Armeniak.

Gaur, 22:00etan, txopoa jasota emango diote hasiera aurtengo San Joan jaiak Axpen

iaz konturatu ginen ez zela ondo ikusi eta entzun, eta, beraz, formaturia aldatu eta zerbait desberdina egitea pentsatu dugu", adierazi du Irati Armendia Jai Batzordeko



BITTOR URIARTE



BITTOR URIARTE



BITTOR URIARTE

**Garaje atek / Automatikoak/ Eskuzkoak
Instalazioak / Konponketa / Mantenua**

ATEMATIK

Artia industrialdea, z/g Tel.: 94 623 15 23 / Faxe: 94 623 18 95
48 292 Atxondo - Bizkaia

DRAXTON
ATXONDO

DRAXTON **GIS**
Mobility inspired



www.draxton.com

Europako automozio balazta sektoreko osagaien ekoizpenean liderrak gara

JAIAK!

BERRIZ

2019ko EKAINA



Berrizko jaiak

Ekainak 28, barikua

- 18:00** Karro-poteoa Olakuetatik hasita. Txosnaguneak antolatuta.
- 19:00** Pregoia eta txupinazoa, Berrizko Pentsiodunekin. Udaletxean. Ondoren, jaietako KARTEL LEHIAKETAREN sari banaketa udaletxean.
- 19:15** Txosnen irekiera.
- 20:00** Donien Atxa eta DANTZARI DANTZA entsegua. Elizondo Plazan.
- 21:30** Erromeria Luhartz taldeagaz. Elizondo Plazan.
- 23:00** Kontzertua: Melenas. Txosnagunean. Patxadaz txosnaguneak antolatuta.

Ekainak 29, zapatua

- 10:00** Kuadrillen bazkarirako lekuen zozketa. Elizondo Plazan.
- 11:00** Trena Elizondotik Olakuetaraino.
- 12:00** Meza nagusia. Ondoren, DANTZARI DANTZA.
- 12:30** Kale antzerkia Sardina bakalau Anita Maravillas Teatro Konpainia. Lorategian.
- 14:00** PAELLA LEHIAKETA udaletxeko lorategian.
- 15:00** Bazkari herrikoia (autogestionatua). Txosnagunean.
- 17:30** Karta joko lehiaketa: MUS, TUTE eta BRISKA. Izen- ematea 17:00 - 17:30. Eskolako Patioan.
- 18:00** Jaitiera. Igo ondoren, Zumba! eta mozzorro lehiaketaren sari banaketa txosnagunean.
- 18:30** Jaikide Diskofesta Elizondo Plazan.
- 19:30** Herriko IGEL txapelketa. Izen-ematea 19:00 - 19:30.
- 20:00** DANTZARI DANTZA.
- 20:30** BOLO txapelketa.
- 22:30** Su à feu Deabru Beltzak, Kale Antzerkia. Elizondon.
- 23:30** Erromeria Oihan Vegagaz. Elizondo Plazan.
- 23:30** Kontzertua: ANIER txosnagunean. Ondoren, DJ Tre Maldika eta DJ Fluor, txosnaguneak antolatuta.

Ekainak 30, domeka

- 11:00** Margo lehiaketa umeentzat. Udaletxeko lorategian. (Euria egiten badu, eskolako patio berrian).
- 18:00** Bizikleta martxa herrikoia, udaletxe aurrean hasita.
- 19:30** El apartamento Kale antzerkia Cirk About It Taldeagaz. Eskolako patioan.
- 22:00** Fito & Fitipaldis taldeari gorazarre, Willson & Willsonetis Taldeagaz, Elizondo Plazan.

Uztailak 1, astelehena

- 12:00** TRIBIALA (12 urtetik gorakoentzat). Udaletxeko Lorategian.
- 12:30 - 14:00 / 16:00 - 19:00** Umeentzako parkea: Jumping, puzgarriak etab. Berrizburu kiroldegian.
- 17:00** TIRAGOMA TXAPELKETA udaletxeko parkean. Maila ezberdinak.
- 18:00** 3*3 Saskibaloitxapelketa 9tik 17ra urte bitarteko gazteentzat. Eskolako patioan. Ondoren, Jaurtiketa libreen saskibaloitxapelketa familientzat.
- 18:00** Mariachi Los Charros. Elizondo plazan.
- 19:30** Nesken X. eta Mutilen XXI. FRONTENIS TXAPELKETAko FINALAK Olakueta Frontoian.
- 19:30** Musika eta Jaia EUSKAL DISKOFESTAgaz. Eskolako patioan.
- 20:30** BITS JAIA.
- 20:30** Kontzertua: Berrizko Taldeak. Txosnaguneak antolatuta.

Uztailak 2, martitzena

- 12:00** Meza nagusia eta DANTZARI DANTZA.
- 14:00** Jubilatuentzat bazkaria. Bazkalostean, musika. Kiroldegian.
- 18:00** Dantza, Ertza Meeting Point. Iraupena: 15 min. Eskolako goiko patioan.
- 18:30** Dantza, Kukai Dantza & Brodas Bros Topa. Iraupena: 45 min. Eskolako patio berrian.
- 19:15** Bertso saioa. Berrizko Bertso eskolaren eskutik. Txosnaguneak antolatuta.
- 20:00** DANTZARI DANTZA.
- 21:00** Tortilla lehiaketa udaletxeko lorategian.
- 23:00** SU ARTIFIZIALAK.
- 23:15** ABBA taldeari gorazarre, ABBA Revival taldeagaz. Elizondo Plazan.



express
Zengotitabengoa BERRIZ 946 824 215

Produktu ekologikoen eskaintza





Ibai Ondo
Ferreteria · Burdindegia

Iturriza, 10
946 824 489
f 946 824 489
ferreteriaibaiondo@gmail.com
BERRIZ



keinuu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

www.keinuoptometriazentroa.com

Jai giroz bustitako egunei aurre egiteko prest daude Berrizen

Ekainaren 28an botako dute txupinazoa, eta uztailaren 2ra arte kultur eskaintza zabalaz gozatzeko aukera izango dute

BERRIZ • AITZIBER BASAURI

Indarra batu eta jai egunei aurre egiteko prest daude Berrizen. Ekainaren 28an, txupinazoa jaurti eta jai giroak eztanda egingo du.

San Pedro egun handia dute berriztarrek, adin guztietarako ekitaldiak batzen dituen eguna

dute iluntzean. Aurten, gainera, neska batek ere dantzatuko du.

Deabru Beltzak konpainiaren *Su a feu* ikuskizunak argituko du

Kukai Dantza & Brodas Bros taldeak 'Topa' dantza ikuskizuna eskainiko du

Santa Isabel egunera arte, ekintza aukera zabala dute berriztarrek.

San Pedro eguna, ekainaren 29a, egun handia dute herrian, eta, goizetik hasita, adin guztietarako ekitaldiak egongo dira.

Paella txapelketak mila lagunetik gora batuko ditu udaletxeko lorategian

Paella txapelketak mila lagunetik gora batuko ditu aurten ere, eta gazteek antolatutako jaitsierak kolore berezia emango dio egunari, mozarrotuta egingo dute-eta. Usadioari eutsiz, herriko ezpatadantzariak Dantzari Dantza egingo

gaua. Musika, bestalde, Oihan Vegaren erromeriak eta Dj Tre Maldikak eta Dj Fluor-ek ipiniko dute.

Dantza eta musika

Cirk About It eta Anita Maravillas konpainien eskutik, antzerkiak gozatzeko aukera emango dute sanpedroek; eta Kukai Dantza & Brodas Bros eta Ertza dantza taldeen *Topa* eta *Meeting Point* ikuskizunak aurketuzko dituzte. Musika borobilduko du kultur eskaintza: Luhartz taldeak, Los Charros mariatxiek eta herriko musika taldeek joko dute hurrengo egunetan. Fito & Fitipaldis eta ABBA taldeei gorazarre egingo diete Willson & Willsonetis eta ABBA Revival taldeek, hurrenez hurren.



pedro juan
J A T E T X E A

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46

PINTURAS
BERRIKOLOR

GAIZKA FERNANDEZ

699 009 050

GAIZKA FER76@GMAIL.COM

PINTURA DECORATIVA E INDUSTRIAL

Azkonizaga

Edari banaketa

GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

BERRIZ ARKITEKTOAK

Josu Oarbeaskoa
Patxi Ecenarro

Learreta Markina 24 behe, Berriz
T: 946 82 77 49 F: 946 55 07 60
E: o.josu@berrizarkitektoak.com

Ganeko Etxe J A T E T X E A

Tel.: 946 824 027
Elizondo, z/g - BERRIZ

HIERROS RIEZU S.A.
burdinak eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131
Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net

Berrizko pentsiodunek botako dute jaiei hasiera emango dien txupinazoa

Mugimenduko kide den Mari Tere Alberdik adierazi du "oso pozik" hartu dutela ardura, eta urte eta erdian egindako lanaren "errekonozimendu" moduan hartzen du

TXUPINAZOA • JOSEBA DERTEANO

2018a hasi zenetik hona, Berrizko pentsiodunak astelehenero batzen dira, euren egoera hobetzeko borrokan. Asteko mugimenduak ezagutara eman eta aurrera begirako egitasmoak eztabaidatzen dituzte. Datorren astean, ostera, astelehenean ez ezik, ekainaren 28ko barikuan batzea ere egokituko zaie. Izan ere, egun horretako

"Hasieran, 20 bat lagun ginen. Gerora, 70 edo 80 lagunera igo eta kopuru horri eusten diogu"

arratsaldean, Berrizko jaiei hasiera emateko txupinazoa botako dute. "Oso pozik" hartu duten ardura

dela adierazi du Berrizko pentsiodunen taldeko Mari Tere Alberdik, eta urte eta erdian zehar egindako lanaren "errekonozimendu" moduan hartzen du.

Egunotan, txupinazoa bota aurretik irakurriko duten testua lantzen ari dira. Talde barruko zein kanpoko hainbat jende egindako ekarpenekin osatuko dute adierazpen definitiboa.

Konpromisodun taldea

Batzuetan, mugimenduak indarra galtzen joaten dira denbora joan ahala. Baina pentsiodunen mugimendua ez da nekatu, eta berriztarak horren erakusgarri dira. "20 bat lagun hasi ginen. Gerora, 70 edo 80 bat lagunera igo ginen eta, gaur egun, kopuru horri eusten diogu. Horrek konpromiso bat erakusten du", Alberdiren ustetan. Hala ere, atea denentzat dutela zabalik dio.

Atea zabalik dute gura duten denentzat. "Desiratzen gaude jende gehiago batu dadin".

"Desiratzen gaude jende gehiago batu dadin", esan du.

Eguaztenero, Bilbon egiten den pentsiodunen Bizkaiko batzarrera joaten da Alberdi, taldeko beste kide batzuekin batera. Han, asteko albisterik garrantzitsuenen berri jasotzen dute. Ondoren, jasotako informazioa Berrizen kontatzen dute, astelehenetan, 12:00etan, udaletxe aurreko plazan. Beste mugimendu batzuekiko elkartasuna ere erakusten dute: osasun arlokoak eta gazteen ingurukoak, besteak beste.

Berrizko manifestazioa

Joan zen astelehenean, pentsiodunek Durangon manifestazioa egin zuten egun berean, Berrizen beste manifestazio bat egin zuten, udaletxetik Olakueta plazara.



JAVI MAR FLO

VCG DECOLETAJE
Vda. de Cándido Gastelurrutia, S.A.

946 824 012 info@vcg-decotetaje.com
946 827 978 www.vcg-decotetaje.com
Eitua Industrialdea, 20 48240 Berriz, Bizkaia

CERAMICAS

MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION

MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

EREÑA ERRETEGIA
JATETXEA

Ondo pasa jaietan!!

Bº Ereña, 36 - 48240 BERRIZ
Tel.: 94 682 40 33

FORJAS DE BERRIZ, S.L.

Pieza berezien forjaketa beroan

Iturriza, 22 • 48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 946 826 520 • Fax: 946 826 521
www.forjasdeberriz.com

T.A. TORNILLERIA AMEZUA S.A.

TORLOJU eta PIEZA
BEREZIEN FABRIKAZIOA

Geltoki, 13 - 36 PK - Tel.: 946 824 059 - Faxe: 946 827 980 - 48240 BERRIZ (Bizkaia)
www.tornilleria-amezua.com - jamezua@tornilleria-amezua.com

Ekainaren 21ean

DURANGO **musika**
‘Uda gau bateko ametsa’
(Bogoroditsie),
20:00etan, Ezkurdin.

IURRETA **musika**
‘Blues Deluxe’,
19:30ean, herrigunean.

MALLABIA **Goitako jaiak**
Txopoa igotzea 20:30ean.
Gero, **auzotarren afaria.**

ZALDIBAR **musika**
Orreaga 778+
Worth It+ Stronger
Together+Waste,
22:00etan, Gaztetxean.

Ekainaren 22an

ABADIÑO **musika**
Txorroskilo + Krisis,
22:00etan, Gaztetxean.

DURANGO **aurkezpena**
Euskal Herriko
V. Jardunaldi feminista,
11:00etan, Andragunean.
Munduko arrozak,
13:00ean, Ezkurdin.

DURANGO **euskal jaia**
Durangaldeko Ermitak,
08:30ean, Madalenan.
Alpino Tabira Mendizale
taldea.

DURANGO
Murueta Torreko jaiak
Txupinazoa, 11:00etan.
Puzgarriak eta paella
txapelketa, 12:00etan.
Herri kirolak eta
puzgarriak, 17:30ean
Txistorra, 19:00etan.
Erromeria, 20:30ean.

ELORRIO **elkartasuna**
Saskibaloï partidu
solidarioa: Elorrio
kirol taldea-Zaldibarko
emakume beteranoak
11:00etan, kiroldegian.
Real Palestine Youth F.C.
saskibaloï taldeak Euskal
Herrian egingo duen bira
laguntzeko. Gero, luntxa.

IURRETA **plazaratu astea**
Bigarren Eskuko Azoka,
plazan (10:30-14:30).
Jatekoa eta DJ Itsuaren
musika ere bai.
Boluda Kabareta, 22:00etan.

MALLABIA **Goitako jaiak**
Patata tortilla lehiaketa,
19:30ean. Gero, **jolasak.**

Ekainaren 23an

DURANGO **Tabirako jaiak**
Mendi martxa, 09:00etan,
Tabirako elizan; 10:00etan,
mendi lasterketa.

DURANGO
Murueta Torreko jaiak
Tortilla txapelketa,
11:00etan.
Tramankuluak: txapa,
kapela eta makillaje
tailerrak, eta, sormenezko
ile apainketa, 12:00etan.
Igel txapelketa, 13:00ean
Apar jaia, 16:30ean.
Poneyak, 17:00etan.
Txokolatea, 17:30ean.
Errifaren zozketa, 20:30ean.

MALLABIA **Goitako jaiak**
Meza, 11:00etan, plazan.
Gazte Alai dantza taldea
eta bertso saioa: Bittor
Altube, Ander Sarriugarte
eta Irune Basagoiti. Gai
jartzailea: Eider Gallastegi.
Auzoko kuadrillen arteko
herri kirol dema.
Bola-jokoa, 18:00etan.

IURRETA **plazaratu astea**
Aire libreko margo
lehiaketa, 11:00etan,
plazan. Sariak: 200 euro, 100
euro eta 50 euro.
Umeen marrazketa
lehiaketa ere bai.



Javier López Jaso & Marcelo Escrich 4tet
“Aporía”
JAZZERUENA
Ekainak 26, 21:00etan



Cía Barsanti
KALE GORRIAN
Ekainak 28, 19:00etan



Adi!
JAZZERUENA
Uztailak 3, 21:00etan



San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDAIA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

Ekainaren 27an

DURANGO **musika**
EguenERO: Petti.
20:00etan, Intxaurren.

Ekainaren 28an

DURANGO **musika**
Parabellum + Puro Chile,
22:00etan, Plateruenean. Haur
minbiziaren kontrako kontzertu
solidarioa. Sarrerren dirua
Aspanovasentzat izango da.



Ekainaren 23an

ABADIÑO jolasak eta sua
Umeentzako jolasak,
globoflexia, ponpak,
uretako jolasak...
16:00etan, Matienako
Galizia plazan.
Pintxoak denentzat,
18:30ean.
Jokoak, musika eta
sorpresak, 19:00etan.
Txokolatea, 21:45ean.
Sua, 22:00etan, Zelaieta,
Matiena eta Muntzaratzen.
Muntzaratzen, 20:00etan,
txokolatea eta musika.

ATXONDO sua
San Joan gaua,
21:00etan, Gaztetxean.
Txistorra eta pintxoak
salgai.

BERRIZ **musika**
Disko txiki, 19:00etan,
Berrizburun.
Gure Izarraren taberna
zabaldur eta disko festa,
20:30ean.
Sua, 22:30ean.

DURANGO **akelarrea**
Txokolatea, 21:00etan,
Mataderoko parkean.
Akelarrea, 22:30ean. Su
artifizialen ondoren, **sua**
piztuko dute.

ELORRIO **San Joanera**
igoera San Joan ermitara
igoera plazatik,
16:30ean.
Umeentzako kopautxo
eta ‘Patata Tropikala’
antzezlan, 17:00etan,
San Joan ermitan.
Sua, suzko zezena,
su-ikuskitzuna eta Dj
Kaktus, 22:00etan,
Kiroldegiaeren alboan.

GARAI sua
Kopaua eta sua,
19:00etan, San Juanen.

IURRETA **afaria**
Herri afaria, 20:00etan.
Erromeria: Luhartz,
21:00etan.
Sua, 22:30ean. Ondoren,
erromeriak jarraituko du.

IZURTZA **kalejira**
Parrillada, 20:30ean,
Santo Tomaseko parkean.
Ondoren, **sua** piztuko dute.

MAÑARIA sua
Sua, 20:00etan, plazan.

MALLABIA sua
Sua, 19:30ean, Ansoagako
bidegorrian. Goita auzoan,
20:30ean.

OTXANDIO **kalejira**
Txistulariekin kalejira,
arratsalde-iluntzean,
herrian suak piztuko diren
lekuetatik plazaraino.
San Joan sua, 22:00etan.

ZORNOTZA **musika**
Puzgarriak, 18:00etan,
Zelaieta parkean.
Batu-klang perkusio
taldea, 21:00etan, Andra
Mari plazatik eta Udazken
taldeko gaiteroak Luis
Urrengoetxeatik irtenda.
Sua, 22:30ean, Nafarroa
aparkalekuan.
Sorgin Gaua: San Joanera
igoera, 21:30ean, herriko
plazatik. **Bertsolariak,**
txalapartariak, konjurua
eta sua, sorgin eta
txistulariekin, 22:30ean.
Talde feministak antolatuta

Zine- ma

:: Durango ZUGAZA

• **Godzilla. Rey de los monstruos**
barikua **21:** 19:30/22:00
zapatua **22:** 17:30/20:00/22:30
domeka **23:** 17:30/20:15
astelehena **24:** 18:30/21:00
martitzena **25:** 20:00
eguzatena **26:** 20:00

• **Un atardecer en la Toscana**
barikua **21:** 19:30/22:00
zapatua **22:** 20:00/22:30
domeka **23:** 19:00/21:00
astelehena **24:** 18:30/21:00
martitzena **25:** 20:00
eguzatena **26:** 20:00

• **Toy Story 4**
barikua **21:** 19:30/22:00
zapatua **22:** 16:45/17:30/19:00/
21:30
domeka **23:** 16:30/17:00/19:00/
21:00
astelehena **24:** 18:30/21:00
martitzena **25:** 20:00
eguzatena **26:** 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **El vendedor de tabaco**
barikua **21:** 20:15
zapatua **22:** 19:30/22:00
domeka **23:** 20:00
astelehena **24:** 20:15

• **Mla y el leon blanco**
zapatua **22:** 17:00
domeka **23:** 17:00

Bizirik dagoela aldarrikatzeko, Herri Maitek kontzertua eskainiko du, akordeoiagaz eta perkusioagaz

Ekainaren 22an izango da kontzertua, San Jose Jesuitak ikastetxean, 19:00etan; hamazortzi abesti ezagun joko dituzte



Herri Maite

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

"Inork gutxi imajinatuko zuen 2019an bizirik jarraituko genuela", adierazi du Durangoko Herri Maite akordeoi taldeko Antonio Nuñezek, ekainaren 22ko kontzertua iragar-

tzerakoan. "Kontzertu hau bizirik gaudela aldarrikatzeko da. Egin dugun lan handiari eskerrak, eta hainbat aldaketa eta birmoldaketaren ondoren, hemen gaudela esateko", esan du. Kontzertu honetarako,

akordeoiez gainera, perkusioaren laguntza ere izango dute. Iker Hernandez Legorburu bateria-jotzailea izango da arduraduna.

Nuñezen berbetan, kontzertua berezia izango da, izan ere, abes-

tiak ezagunak izan arren, ezohiko formatu batean gozatuko ditu ikusleak. "Ez da batere ohikoa akordeoi orkestra batek abesti hauek jotzea; gehienak ezezagunak dira formatu horretan", adierazi du. Horrela,

doinu ezberdinek beteko dute Jesuitetako agertokia. Besteak beste, *Braveheart*, *2001: A Space Odyssey* eta *The Last of the Mohicans* pelikuletako musika joko dute kontzertuan. Doinu latinoek ere eurenganatuko dute protagonismoaren zati bat. *La Bamba* eta *Oye como va* abestiak ipini ditu Nuñezek adibide lez. Emanal-

Besteak beste, 'Braveheart' edo '2001: A Space Odyssey' filmetako musika joko dute kontzertuan

dia borobiltzeko, *We are the World* ezaguna joko dute. "Abesti honek sasoi bat markatu zuen, eta helburu on bat zuten hainbat musikari ezagun batu zituen", gaineratu du. Guztira, hamazortzi abesti eskainiko dituzte.

Ikus-entzunezko emanaldia

Akordeoiaren eta perkusioaren doinuak nahasteaz gainera, ikus-kizuna aberastuko duten ikus-entzunezko proiektzioak ere egongo dira emanaldian. Endika Delgado arduratu da lan hori egiteaz. "Lan handia izan da, eta bilatu, egokitu, aldatu eta abestiak prestatu, denabatera egin behar izan dugu", azaldu du Nuñezek.

Lau taldek Zaldibarko gaztetxea astinduko dute hardcore gauean

Ekainaren 21ean hasiko da doinu gogorren festa. Orreaga 778, Waste, Worth It eta Stronger Together taldeek joko dute bertan; hiru taldek lan berria aurkeztuko dute

MUSIKA • A.M.

Barikuan, ekainaren 21ean, Zaldibarko gaztetxean egingo den kontzertu sorta hardcorearen aniztasunaren erakusgarri izango da. Bertan, Orreaga 778, Waste, Stronger Together eta Worth It taldeek kartel indartsua osatzen dute, eta lehenengo hiruek diskoa aurkeztuko dute, gainera. Orreaga 778 gipuzkoarrek *Utrunque Roditur* diskoa aurkeztuko dute; taldean aldaketa batzuk izan eta gero, boskote lez egonkortu da taldea. Waste Suediatik datorren laukotea da; *Last One Standing* aurkezteko Europatik zehar egiten ari diren birako geldialdietako bat da hau. Stronger Together eta Worth It taldeak oso ezagunak dira Durangaldean. Lehenengok *Integridad* lana aurkeztuko dute; Worth It-ena, geldialdi baten osteko lehen kontzertua izango da.

Aurrefesta Sorginen

Gaztetxeko kontzertuetarako giroa berotzeko, Oldarkor taldeak kontzertua eskainiko du Sorgin tabernan. 19:00etan hasiko da.



Waste suediarrek Europako biran murgilduta daude EP berria aurkezteko.

Boluda Kabaretak umorez beteko du lurretako plaza

Cecilia Paganinigaz batera, Gorka Gansok parte hartuko du kabaretean; zirkuagaz lotutako artistak egongo dira

ANTZERKIA • M.O.

Cecilia Paganiniren konpainiak La Noche Boluda ekimena garatu du Plateruenean ikasturtean zehar, eta antzeko kutsua edukiko duen Boluda Kabareta prestatuko du biharko, Iurretako plazan. 22:00etan hasiko da Plazaratu As-

tearen barruan egingo den ikus-kizuna.

Paganinigaz batera, Gorka Ganso clownak ere parte hartuko du kabaretean. Gainera, zirkuagaz lotutako artistak ere egongo dira. Sarrera doakoa izango dela azaldu dute antolatzaileek.



Cecilia Paganini izango da ikuskizunaren protagonistetako bat.

Bisita gidatua

Martzaa auzoa (Atxondo)

Ekainak 30 - 11:30

Apatamonasterio - (Atxondo)

Izena ematea eta informazioa:

gerediaga@gerediaga.eus

Prezioa: 5€ (Astola aldizkaria opari)

Gaztelerazko bisita gidatuan

Juan Manuel Gonzalez Cembellinek

Martzaatarren leinuaren

historia eta istorioak argituko ditu.



Durangaldeko historian sakontzeko
ikerketa lan berriak ASTOLA
aldizkariaren 13. zenbakian.
Ohiko saltokietan eskuragarri.
5€ (*Elkarteko bazkideek doan*)

Euskal Jaiaken amaiera Akelarregaz eta Matias Sagrerasen kontzertuagaz

Euskal Jaiaken ospakizunen baitan egingo da dantza ikuskizuna, ekainaren 23an, 22:30ean

DANTZA • ARITZ MALDONADO

Durangoko Kriskitin dantza taldekoek hamar urte baino gehiago daramate San Joan bezperako gauaren inguruko *Akelarre* ikuskizuna plazarik plaza erakusten. Elorrión, Mungian eta Sopelan egon dira, besteak beste. Durangon bertan, hainbat bider erakutsi dute dantza eta kantua uztartzen dituen ikuskizuna. Kasu honetan, San Roke auzoan izango da emanaldia, Herria elkarteagaz elkarlanean antolatuta.

50 bat lagunek parte hartuko dute 'Akelarre'-n: dantzariak, musikariak eta koruko kideak

Ia ordubete irauten duen ikuskizunean 50 bat lagun batzen dira: erdiak baino gehiago dantzariak dira, eta, eurekin batera, albokari batek, soinuariak, txalapartariak, biolinistek eta Doinuzahar abesbatzako lagunak parte hartuko dute.

Herritarren festa

Durangoko dantza taldeak antzinako akelarreetarako bidaia proposatzen du ikuskizun honegatz. Hain zuzen ere, Kriskitinek eginitako ikerketa lan baten ondotik, XVI. mende inguruko herritarrek jaia nola bizi zuten irudikatuko dute. "Herritar arrunten festa bat zen, gizon eta emakumeek ospatzen zutena, ondo pasatzeko

asmoagaz", azaldu du Egoitz Esturo Kriskitineko kideak. Parte-hartzaileek garaiko arropa jantziko dute, ahalik eta errekreaziorik fidelena egiteko asmoz. Dantzarien mugimenduei zein ikuskizunari berari laguntzeko, sua ere presente egongo da San Rokeko jaian.

Organo kontzertua

Kriskitinen emanaldia 2019ko Euskal Jaiak zikloa itxiko duen emanaldia izango da. Aurretik, zapatuan, hilak 22, Matias Sagreras organista argentinarrek kontzertua eskainiko du Andra Maria elizan. Sagreras Buenos Aireseko basilikako organista da, eta azken ikasturtea Donostiako Musiken igaro du goi mailako ikasketak egiten. Arandoño elkarteak Xabier Aranaren esanetan, horrek Durangora ekartzea erraztu du. "Sekulako zortea dugu Durangon horrelako maila duten organistak edukita", esan du. Maiatzean Oli-

Matias Sagrerasen kontzertua zapatuan izango da, 20:00etan, Andra Mariko elizan

vier Latry egon zen, eta azaroan David Brigsek eskainiko du kontzertua. Zapatu honetako kontzertua 20:00etan hasiko da. Hilabete inguruan, 40 ekitalditik gora egin dira Durangon, 28 elkarte antolatuta. Besteak beste, musika emanaldiak, kirol jarduerak eta mendi ibilaldiak antolatu dira.



Akelarre.



Akelarre.



Matias Sagreras.

Gai librea

Garazi
Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko museoa



...atera dadila herriko plazan

Askotan zapaltzen ditugu, baina gutxitan jabetzen gara zenbateko garrantzia duten. Gure herriko plazez ari naiz. Herriko plazak dira gure jai guztien protagonistak. Uda heltzeaz dagoela, gainera, plazan egiten dira hamaika ikuskizun.

Herriko plazan ikusiko ditugu dantzariak, elkartuko gara lagunekin, dantzatuko gara, ilusioz itxarondako kontzertuaz disfrutatuko dugu eta barre edo negar egingo dugu bertan plaza-ratzen diren antzezleekin.

Uda eta herriko plaza batera doaz. Durangaldean ekintza kultural asko egingo dira urtaro honetan; herrietako jaiez gain, Durangon "Uda Giro", Jurretan "Jurreta plazaratu" edo Zornotzan "Haizetara" ekintzek kaleak beteko dituzte. Dohaineiko ekitaldiak dira guztiak, gainera. Kultura denon esku dagoela argi utziz. Irten gaitezen kalera orduan, herriaren parte sentitzeko beste modu bat ere bada eta, gainera, kulturaren alde egoteko beste era bat ere bai.

Hala ere, askotan entzun izaten da ez dagoela eskaintza kulturalik edo egiten dena ez dela nahikoa, baina errealitatea guztiz desberdina da, eta hori, ekintza kulturalak antolatzen ditugunok argi dugu. Kaleak, plazak, antzokiak, bibliotekak, museoak, aretoak... urtean zehar ekitaldi kulturalak betetzen dugunok badakigu zer den hainbat eguneko lanaren ostean gela hutsik ikustea, publiko gabe.

Udan, kalean egongo gara denok, musikaz, antzerkiaz, dantzaz eta abarrez disfrutatzen. Baina ez ahaztu urtean zehar ere, lau hormen artean ekintza kultural asko dagoela Durangaldean. Herriko plaza asko daude eta denak ez daude kalean.

hitz liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak

MOIO GORDETZEA
EZINEZKOA ZEN
Kattalin Miner (2019)

ROWLEY NAIZ, MUTIKO
SUPERJATORRA
Jeff Kinney (2019)

ROYAL GARAGE (CD)
Ara Malikian
(2019)

katerin ardoak

iñaki uribe

25^{unte} saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Osasun gida

anboto

 **Ginekologia**
PSE: 93/18

 **mam** ginekologia zentroa

 Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Fisioterapia**
PSE: 155/17



HOBETU
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goizatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaedurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

 **Optometria**
PSE: 162/13

 **keinu** optometria zentroa

Naila Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099


www.keinuoptometrizentroa.com

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

 **UGATZ**

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**
Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Peru Irazola Arbulu
Enduro extremeko
motor gidaria. Jon Zure
Moto taldean dabil.
Elorrio | 1994

ikasketak amaitu eta lanean hasi nintzenean, kirol hau serioago hartzea erabaki nuen.

Non entrenatzen zara?

Mendian, gehienbat. Durangaldean Mañaria aldean ibili naiz, harrobi abandonatu bateko harri artean. Baita Elorrion ere, Memaia

Proba luzeak izaten dira, sarritan lau ordutik gorakoak. Beraz, erresistentzia izatea beharrezkoa da"

aldean. Tolosa inguruan ere ibiltzen naiz.

Zer dohain behar ditu enduro extremeko kirolari on batek?

Arin joateko ahalmena eta teknika, biak behar dira. Proba luzeak izaten dira, sarritan lau ordutik gorakoak. Frantzia, zortzi orduko bat ere badago. Beraz, erresistentzia ere beharrezkoa da.

Zu zein alderditan zabilta ondoen, eta zeinetan hobetu behar duzu?

Lasterketetako zati teknikoetan nahiko ondo moldatzen naiz. Abiadura probetan, agresibitate puntu bat falta zait. Ez naiz txarto moldatzen, baina hobetu dezaket.

Ondo zaintzen duzu motorra?

Norbere gustura ibili dadin, zaindu egin behar da. Beti dago hobetzeko zerbait. Hala ere, burua larregi ez estutzen ahalegintzen naiz. Motorra perfektzionatzen aritu baino gehiago, gurago dut denbora hori entrenatzeko erabili.

“Austriako proban aritzea futbolearen txapeldunen ligan jardutea lakoa izan zen; munduko onenak zeuden han”

Probaren handitasunak ez zuen elorriar gaztea kokildu eta, atzetik aurrera, sekulako lasterketa egin zuen; 75. amaitu zuen

MOTORRA • JOSEBA DERTEANO

Peru Irazola enduro extreme modalitateko kirolaria da. Ikasketak amaitu zituenetik, serio entrenatzen dabil eta emaitza onak lortu ditu. Ekain hasieran, Austrian, munduko probarik prestigiotsuenera irteerako parte hartu eta 75. amaitu zuen. Espezialitateko onenaren artean, atzetik aurrerako bidea egin zuen.

Zelako esperientzia izan zen?

Austriako proban aritzea futbolearen txapeldunen ligan jardutea lakoa izan zen. Munduko onenak zeuden han. Antolakuntza, babesle indartsuak, ikusle asko... beste maila batean dago.

Uste baino lasterketa hobea irten zitzaizun?

Lasterketa oso ona irten zitzaidan eta pozarren nago. Bezperako sailkapen fasean 229. tokian sailkatu nintzen. Beraz, banekien lasterketa egunean atzetik aurrerako bidea egin behar nuela, nahitaez. Dena emanda ibili nintzen, eta 150 bat lagun aurreratzea lortu nuen. Azkenean, 75. amaitu nuen.

Euskaldun asko aritu ziren?

Kirol honetan ez dabil euskaldun askorik. Aspaldian, Tolosa, Azpeitia, Amurrio eta Amezketako

lagun banagaz entrenatzen naiz. Aurten, txapelketako hiru probatan parte hartzea erabaki dugu bostok. Austriakoa izan da euretarikoa bat.

Zeintzuk dira besteak?

Maiatzean Portugalen aritu ginen, eta hirugarrena asteburu honetan dugu, Palentzian.

Zer helburugaz zoaz?

Sailkapen fasea gainditzea lortzen badut, ea 30 onenen artean geratu naitekeen. Ez da Austrian moduko maila handia egongo, baina munduko proba bat beti da zaila.

Motorrerako afizioa umetan hartu zenuen?

7tik 17 urtera arte, eskian ibili nintzen. Azken urtean, juniorretan, Espainiako bigarren geratu nintzen slalom erraldoian. Federazioaren bitartez, Jakako goi-errendimenduko zentro batean ere egon nintzen bizitzen denboraldi batean. Une batean, erabaki bat hartu behar izan nuen: han horretan zentratu edo etxera itzuli. Egoera aztertuta, bueltatzea erabaki nuen.

Noiz zaletu zinen motorrera?

Eskia utzi eta gutxira, nire urteguenean, osabak motor txiki gat erregalatu zidan: Pitbike bat. Hasieran, eskiaren ordezkoko moduan balio izan zidan.

17 urtera arte eskian ibili nintzen eta Jakako goi-errendimenduko zentro batean bizi izan nintzen denboraldi batean"

Nogaz entrenatzen zara?

Elorrioko bategaz hasi nintzen. Gero, Jon Agirrebeitia berriztarra ezagutu nuen. Orduan, bera topera zebilen enduro extreme modalitatean. Haregaz lagunartean ibiltzetik, lasterketetan aritzera saltoa eman nuen. Harrezkero, Euskal Herrian eta Estatuko proba batzuetan podiumak egin ditut. Ingeniari



Peru Irazola, proba bateko aldats gogor bat gainditzen.

Ezkurdi Kirol Taldearen 25. urteurrena ospatzeko, kirol eguna antolatu dute

Durangoko taldearen mende laurdena ospatzeko, egun osoko egitaraua prestatu dute zaturako; antolatzaileek Arripausuetara joateko deia egin diete durangarrei

FUTBOLA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
25 urte pasatu dira Durangon hainbat gurasok Ezkurdi Futbol taldea sortu zutenetik. "Hainbat ume talderik barik geratu ziren, eta guraso talde batek futbol eskola sortzea erabaki zuten", adierazi du te Ezkurdi taldeko kideek. Harrezkero, apurka-apurka hazten joan

den kluba da Ezkurdikoa, eta gaur egun 15 taldek osatzen dute. Zapatu honetan, kirol eguna ospatuko dute urteurren hori ospatzeko. 10:00etatik eguerdira arte, futbol partiduak jokatu dituzte. Eguerdian tortilla txapelketa egongo da, eta bertaratzen direnentzat luntxa eta edaria ere egongo dira.

Gainera, Gorka Perez DJak girotuko du urteurren jaia. Horrez gainera, 13:30ean, zozketa bat egingo dute. "Arripausuetara joateko deia egiten diegu durangarrei, giro polita egongo da eta. Gainera, jolasak egongo dira umeentzat. Ondo pasatzeko aukera aproposa da", esan dute antolatzaileek.



Ezkurdi Kirol Taldeko nesken taldeetako bat.

Otxandioko Vulcano Lemoa Harrobiren filial bihurtu da eta Bizkaiko Ligan jokatu du

Jokalari faltaren aurrean, Lemoako klubarekin indarrak batzea erabaki dute

FUTBOLA • J.D.
Otxandioko Vulcano futbol taldea jokalaria faltan egon da aurtan. Hori dela-eta, ezin izan ditu Arabako ligako partidu batzuk jokatu, eta kanporatu egin dute ligatik. Lemoa Harrobi taldeari, oster, kontrakoa

gertatzen zaio. Jokalari asko ditu talde bakarrean batzeko. Beraz, klub biek indarrak batzea erabaki dute. Talde bateko eta besteko jokalariekin aurrera jarraituko du Vulkanok, Lemoa Harrobiren filial moduan.

Hirugarren Erregionalean
Hurrengo denboralditik aurrera, Araban barik Bizkaiko Hirugarren Erregionalean jokatu du Otxandioko taldeak. Lemoa maila bi gorago dabil, Lehenengo Erregionalean.

Padel torneoan 3.135 euro batu dituzte, inoizko gehien

Durangoko Fair Play klubak antolatutako txapelketan jasotakoa SFC-SQM Euskadi AESEC elkarteari eman diote

PADELA • J.D.
Fair Play padel klubak aurtan bosgarrenez antolatu du padel torneo solidarioa, eta inoizko arrakastatsuen izan da. Guztira, 3.135 euro batu dituzte, inoiz baino gehiago. Diru hori SFC-SQM Euskadi AESEC

elkarteari eman diote asteen. Elkarre honek sentikortasun zentrala izeneko sindromeak nerbio-sisteman modu batera edo bestera eragindako pertsonei laguntzen die. Dirua, batez ere, gaixotasuna ezagutara emateko erabiliko dute.



Fair Play klubeko eta SFC-SQM Euskadi AESEC elkarteak, diru txekagaz.

Bidezabal ez da Ohorezko Mailara igo, baina lan txukuna osatu du

ATLETISMOA • J.D.
Joan zen asteburuan, Bidezabalgo emakumeen atletismo taldea zazpigarren geratu zen Valladolideko

hirugarren eta azken jardunaldian. Beraz, ez zen Ohorezko Mailara igo. Edozelan ere, txapelketa txukuna egin dute.



Bidezabaleko emakumeen taldea.

Asteko kirolaria



ASIER ASPURU AGORRIA
Abadiño, pilotaria

Azken urtean kalitatezko pauso bat eman eta sasoi betean dabil Asier Aspuru pilotari abadiñarra. Joan zen asteburuan, Euskal Herriko

“Aitor Arabiourrutiagaz binakako txapela lortzeak ilusio ikaragarria egin zidan”

Euskal Herriko klubaren arteko txapelketan binakako eta banakako txapelak irabazi ditu

klubaren arteko txapelketan binakako eta banakako txapelak irabazi zituen.

Egun bitan txapel bi irabazi dituzu. Pozik lortutakoagaz, ezta?
Poz-pozik nago. Hasieratik, ahal bazen behintzat, Euskal Herriko txapel biak lortzea izan nuen helburu. **Azken hile bietan, hiru txapel eta emaitza oso onak lortu dituzu trinketean.**

Trinketean inoiz eman dudak mailarik onena ematen nabil, eta esango nuke trinketerako egin dudak apustuan dagoela horretarako gakoa. Denboraldi hasieran, frontoia alde batera utzi eta trinketean buru-belarri zentratzea erabaki nuen. **Beraz, merezi izan du modalitate bakar batean zentratzea.** Dudarik barik. Trinketean eta frontoian ibiliz gero, entrenamenduak banandu egin behar izaten

dira. Pilotak ez dira berdinak, eta eskuetatik ere gehiago sufritzen nuen. Beraz, trinketerako apustua egin eta ea zer emaitza lortzen nuen ikustea erabaki nuen. **Asteburuko lehenengo txapela Aitor Arabiourrutiagaz lagunagaz lortu zenuen. Nolako momentua izan zen?** Aitor Arabiourrutiagaz binakako txapela lortzeak ilusio ikaragarria egin zidan. Une oso polita izan zen. Lagun handiak gara eta txikitatik gailtza elkarregaz

jokatzen. Gainera, aspalditik elkarregaz txapelak irabazi barik egon gara. **Zeintzuk dira hurrengo helburuak?** Orain, binakako elite txapelketa daukagu, ekain amaieratik uztail hasierara arte. Urtean zehar punturik gehien eskuratu ditugun trinketlariak jokatu dugu. **Amaitzeko, zenbat txapel irabazi ditu Asier Aspuru? Zein da txapel guztietatik bereziena?** Ez dakit ondo, eta ezin dut esan zehatz-mehatz zenbat diren, baina hamarka ditudala esan dezaket. Eta denetan bereziena, edo berezienetakoa bat, orain gutxi lortu nuen Gravni txapelketakoa dela esango nuke.

"Dударik barik, errepikatzeko moduko esperientzia ederra izan da"

Norvegiatik Santiagora, Agirrek eta Garciak 5.266 kilometro egin dituzte bizikletan.



Javi Agirre eta Ester Garcia Santiago de Compostelako katedralaren aurrean astelehenean, erronka amaitu ondoren.

BIZIKLETA • JOSEBA DERTEANO

53 egun geroago eta 5.266 kilometro eginda, Javi Agirrek eta Ester Garciak amaitu dute Norvegia eta Santiago de Compostela bizikletan lotzeko erronka. Astelehenean heldu ziren katedralaren aurreko Obradoiro plaza ezagunera. Nekatuta zeuden, baina pozik. "Dударik barik, errepikatzeko moduko erronka ederra izan da", baloratu du Agirrek.

Enparantzan sartu ziren unean, sentimendu kontrajarriak izan

zituztela esan du: "Poza heldu ginela, eta pena abentura amaitu zelako. Denerik sentitu genuen".

Izan ere, ez da nolana hiko erronka izan. Senar-emazte durangarrak apirilaren 26an abiatu ziren Norvegiatik. Helmugara bidean, hainbat herrialde zeharkatu dituzte, zein bere paisaia, klima eta kulturagaz: "Norvegia, Suedia, Danimarka, Alemania, Belgika, Frantzia, Euskal Herria eta Espainia igaro ditugu. Orain, Norvegian hasi gineneke egunak gogoratzean, sen-

tsazioa dut beste abentura bateko parte izan zirela. Beste noizbait egon ginela han", azaldu du.

Baina, ez, bizipen guztiak erronka beraren zati izan dira. Une politak, gogorak... denerik bizi izan dute. Onen artean, bidean ezagutu dituzten pertsonak daude. "Esaterako, lan kontuengatik Norvegian bizi den Valentziako bikote batek euren etxera gonbidatu gintuen behin: ohea eskaini, afaria eman, garbigailua ipini... Oso esker oneko gaude", adierazi du Agirrek. Gau

hark ez du zerikusirik Alemanian igarotako beste bategaz. "Euria egin zuen egun osoan, eta goitik behera bustita geunden. Iluntzean ezin izan genuen kanpatzeko gunerik aurkitu. Denda izkina batean muntatu eta hantxe eman genuen gaua. 'Zer arraio egiten dugu hemen?' pentsatu nuen une hartan".

Mezua lau haizetara

Abentura honen muinean, mezu bat lau haizetara zabaltzeko gogo dago: organoen donazioak biziak salbatzen dituela, hain zuzen ere. Agirrek giltzurruneko transplante bat gainditu zuen 2014an eta, hurrezkero, hainbat ekintzatan parte hartu du donazioen gaia gizarteratzeko. Ildo horretatik, pozik daude

53 egunetan hainbat herrialde zeharkatu dituzte, Obradoiroko plazara heldu arte

erronkak izandako oihartzunagaz. Behin, Frantziako hedabide batek elkarriketatu zituen. Jantzita eraman duten elastikoak ere erreklamu moduan balio izan die, koloretsua eta deigarria zelako. "Zertan genbiltzan galdetzen ziguten, eta guk gurea kontatzen genien", dio Agirrek.

Burgos inguruan, Antonio Ontoso batu zitzairen, bihotza transplatatuta duen lagun bat. Goiz-goiz esnatu, bizileku duen Aranda de Dueroetik Santiagora joan, 30 kilometro bizikletan atzera egin eta senar-emazteekin batera egin zituen azken kilometroak.



Erronka gogoraren aurrean, ez dute umorea galdu.



Azkenengo kilometroak Antonio Ontosogaz batera —irudiaren erdian— egin zituzten.

Jokaldia

Iñaki
Iza Zarazua
Pilotari ohia



Oposizio garaia

Pilotari profesionalentzat udako denboraldia jaialdiak festa giroan eta ikuskizuna emanez jokatzeko baina zerbait gehiago da; oposizio garaia ere bada. Hile hauetan hasten dira datorren denboraldiko txapelketetan tokia irabazteko lehiatzen, eta pilotari batzuek parte-hartzea ziurtatuta badute ere, beste batzuk beraien artean aritu behar dira norgehiagoka.

Baiko Pilotari dagokionez, aurrelari zein atzelarien arteko lehia ederra espero da udan zehar. Iaz gertatu bezala, Artola, Victor, Laso eta Arteaga izango dira Bengoetxea VI.a-rekin batera oposizioa egingo duten aurrelariak; eta tarteka Agirrek eta Alberdik ere izan dezakete beraien burua aldarrikatzeko aukera.

Atzean, berriz, iaz Mariezkurrenak egindakoa berdintzen saiatu daitezke Aranguren eta Eskiroz, baina, horretarako, Imaz, Larunbe, Ibai Zabala edo Aretxabaleta atzelari handiei aurre egitea tokatuko zaie.

Aspe pilota enpresan ere gauzak estu daude. Bukatu berri den denboraldian erakutsi duten maila ikusita, aurrelarien oposizioak izan daitezke denetan erakargarrienak. Itxuraz, Elezkano, Irribarria, Altuna eta Ezkurdia gainontzekoak baino koska bat gorago daude, baina Jakak edo P. Etxeberriak ez dizkiete inondik ere gauzak erraz jarriko, maila gorenean joka dezaketela erakutsi baitute biek ala biek.

Atzelarien artean ere prest daude denak. Zabaleta eta Rezusta maila gorenean daude, eta Galarzak, Martijak, Erostarbek edo Tolosak elkarren aurka lehiatu beharko dutela aurrekusi daiteke.

merkataritza gida **sarean** anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena (urtsan 50C)

A. Urreta podólogo

Adinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

**ETXETXO**
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

//AUKERA
TABIRA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Despentsa. Egongela. Terraza. Ganbara. Eguskitzua. Kanpoalderantz. **190.000€** neg.
IURRETA. A ESTRENAR. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Kanpoalderantz. **97.500 €**
OCASIÓN. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Garajea. **98.000 €**.
ABADIÑO. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Despentsa. Egongela handia. Ganbara. **149.000€.**
SAN FAUSTO. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Kanpoalderantz. **85.000€**
DURANGO. 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Berogailua. Igogailua. **130.000 €** neg.
KURUTZIAGA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela handia. **99.000 €**
EZKURDI. 3 logela. 2 Bainugela. Sukaldea. Egongela handia. Terraza. Ganbara. **226.000 €**
//ETXEBIZITZAK SALGAI
PLATERUEN PLAZA. AZKEN etxebizitza. 120m². 3 logela. 2 Bainugela. Sukaldea. Egongela. Ganbara. Garajea. **288.000 €**
ERRETENTXU: 2 logela. 2 Bainugela. Sukaldea. Terraza. Egongela. garajea aukeran. **240.000 €.**
ANDRA MARI. 93m². 3 logela. Bainugela. Sukaldea eta egongela. **145.000 €**
MURUETA TORRE. 120m². 4 logela. 2 bainugela. Sukalde handia. Egongela terrazarekin. Trastelekua. 2 garaje plaza. **270.000 €**
ATXONDO . 85m². 3 logela. Bainugela. Egongela. 2 Terraza. Garajea - Txoko. erreformatua. **148.000€**
MENDIZABAL. 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Balkoia. Garaje itxia aukeran. **186.000€**
SAN IGNACIO. 100m². 3 logela. 2 bainugela. Horma-armairua. Sukaldea eta egongela handia. Terraza. Kanpoaldeko garajea. Eguskitzua. Alokailuan erosteko aukeran. **256.000 €**
IURRETA. 2 logela. Bainugela. Sukalde-jangela. Egongela. Terraza. Bizitzen sartzeko. Eguskitzua. **115.000 €**
ZABALE (Ask. Etorbidea). 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. **170.000 €**
ANBOTO. Azken pisua. 3 logela. Bainugela. Egongela. Balkoia. Hegoalderantz. **185.000€**
ABADIÑO. Unifamiliarra. 484 m²-ko partzela. 1000 m²-ko lursail eraikigarria (aukeran)
CENTRO. 100m². 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela handia. Garajea aukeran. **229.000 €**
ERROTARITXUENA. Apartamentua. Dana kanpoalderantz. Terraza. Garaje itxia. **220.000€.**
IURRETA. 111m². 3 logela. 2 Bainugela. Sukaldea. Esekitokia. Egongela handia. 12m²-ko terraza. Trastelekua. Garaje. **276.000 €**
BARRIA. ESTREINATZEKO: 3 Logela. 2 Bainugela. Sukaldea. Esekitokia. Egongela. Terraza. Ganbara. Garajea aukeran. **153.000 €**
MATIENA. LAUBIDETA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. 2 Terraza. Eguskitzua.
BERRIZ.: 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. **65.000€**
Zaldibar. 2, 3 logela. Eguskitzua. Kanpoalderantz. Erreformatua. **99.000€**
//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN
TABIRA: GARAJE a pie de calle de 30m²-ko garajea kalean bertan. Argia eta urarekin.
ASK.ETORBIDEA. Garaje plazak **8.000 €**-tik.
ABADIÑO, 160m²-ko lokala. Egokitua. Dana erakusleho. **185.000 €**
ABADIÑO. 75m². **75.000 €**
ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35m². Ekonomikoa.
F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114m². Salmenta **150.000€** (Negoziaigarria)
IBAIZABAL. 50m². Guztia jarrita. Salmenta/Alokairua. 500€.

**AMBOTO**
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO: Eraiki berria 2 eta 3 logela. Azkeneko duplexak salgai. 178.000.-€ tik hasita.
DURANGO: Komentukalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa.
DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.
DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Hegoalde kalean. Adosatua. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobe.
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. MERKEA.
IURRETA
MASPE KALEA: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua Igogailua.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.
ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.
//LURSAILAK SALGAI
GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean kokatuta. Egokia.
ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitze baimenagaz. Zonalde egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila, Abeitxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.
ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA: EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitze lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.
//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
ABADIÑO: Bifamiliarra salgai. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
ATXONDO: Marzana. Izugarritz txaleta salgai. Ikuspegi ederrak. Berria.
MAÑARIA: Baserrira salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzen sartzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrira berriztatze. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000€
ATXONDO: Baserrira ikusgarria Martza auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berriztuta. Zonalde egokia.
BERRIZ: Bº Murgoitio. Bifamiliarra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela eta 6 komun. Garaje bikoitza. 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobe Anbotora begira.
MENDATA: Lamikiz auzunea. Baserrira bifamiliarra. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO: Eraikin atxiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzia. Estreinatze.
BERRIZ: Baserrira ederra, Murgoitio zonaldean. 3 hektareako lursaila.
//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO
40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.
//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.
//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde Zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.
//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai,. Bulegoa, komuna, eta aldagela. Oso egokia.

**Inmobiliaria del Duranguesado**
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguessado.com
inmoduranguessado@gmail.com

www.inmoduranguessado.com

**DURANGO**

4 logela

133 m²

EZKURDI: Handia eta argitsua. Hall-a, egongela, sukaldea eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea aukeran. Apartamentu 2 egiteko aukera.
370.000€

**DURANGO**

3 logela

2 komun

83 m²

MURUETA TORRE: 83 m². Bizitzen sartzeko moduan. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
290.000€

**DURANGO**

3 logela

2 komun

SAN INAZIO: 83m² eta balkoia. Sukalde jantzia eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua. Komunitateko igerilekua aukeran.
246.000€

**ABADIÑO**

3 logela

111 m²

AUKERA: 160 m²-ko lokala. Edozein jardueratarako prest. Komuna. Aire egokitua. Telebista eta telefonorako harguneagaz.
185.000€

**LAREDO**

3 logela

1 komun

LAREDO: 88,5 m². 2 logela horma-armairuekin, egongela, sukaldea komuna eta balkoi handia. Aparkaleku pribatua.
118.000€

**DURANGO**

3 logela

68 m²

SAN FAUSTO: 60 m². 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna.
82.500€

**AGENCIA INMOBILIARIA**
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

//DURANGO
ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€** / E.E.Z=F
ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z=E
ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran
EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, 2 bainugela eta igogailua. **260.000 €** / E.E.Z=E.
EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. LEHEN 321.500€ / ORAIN **300.000 €** / E.E.Z=F
KALEBARRIA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela. **82.000€** / E.E.Z=G
KURUTZIAGA: 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **99.000€** / E.E.Z=Bidean
MIKELDI: 2 logela, sukaldea balkoigaz, egongela, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. **250.000€** / E.E.Z= F
SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600m²-ko lurzorua. **640.000€**
ZEHARKALE: 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 150.000 € / ORAIN **130.000 €** / E.E.Z= E
ZUMALAKARREGI: 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000 €** / E.E.Z= E
//ABADIÑO
ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / **ORAIN 288.000€** / E.E.Z=E
ARLOZABAL: 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.Z=Bidean
//ATXONDO
ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.E=Bidean
//BERRIZ
BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 €** / E.E.Z= F
BILBO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, 3 bainugela eta balkoia. LEHEN 195.000€ / ORAIN **180.000€** / E.E.E= E
//IURRETA
FAUSTE: Baserrira lurzoruagaz, **220.000€** / E.E.Z=G
SANTA MAÑA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta trastelekua. Lursailarekin. **125.000€** / E.E.Z=G
DANTZARI KALEA: 3 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela, bainugela. **93.000€** / E.E.Z=G
//MATIENA
TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€** / E.E.Z=E
//MAÑARIA
EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara **150.000€** / E.E.E=Bidean Txokoa aukeran
//OTXANDIO
ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€** / E.E.E=F
//ZORNOTZA
SAN PEDRO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela, ganbara eta garajea. **170.000€** / E.E.Z=Bidean
//BERRIAK//
//OTXANDIO
OLETA AUZOA: Banakako etxebizitza. 460m² inguru hiru solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, garajea eta txokoa. 5.000m² inguruko lur sailarekin. **480.000€** / E.E.Z=Bidean



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
ETXEBIZITZAK SALDU

Elorrio. Atiko polita errentan Elorrión. 50 m2. Igogailuarekin. Tel.: 631 12 31 06

Abadiño. Muntzaratz auzoan, 90 m2 etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665 73 31 51

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Zaldibar. Zaldibarren herri erdigunean, 3 logelako pisua, oso eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Elorrio. Elorrioko bikote arduratsu bat gara eta alokairuzko pisu bila gabiltza (Elorrión bertan). Tel.: 688 64 06 04

LURSAILA
Ortu baten bila. Abadiñon ortu baten bila nabil. Ortuak lantzea nire

zaletasuna da. Pertsona gaztea naiz eta nekazaritza oso gustuko dut. Baten batek lursailtxo bat badauka Abadiño inguruan, nik landuko nioke ortua. Tel.: 666 69 10 03.

PERTSONAK ZAINDU

Esperientziadun umezaina. Kaixo, Irantzu naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat umeak zaintzen eta begirale moduan. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644 41 11 74

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

IRAKASKUNTZA

Zientziako klase partikularrak. DBH (3. eta 4. mailan) eta Batxilergoan laguntza klaseak ematen ditut: matematika, fisika/kimika eta teknologia ikasgaietan. 5 urtez irakaskuntza formalean ibili naiz eta zientzietako ikasgaietan daukat formaziorik handiena. Interesik badaukazue jarri nirekin harremanetan: Tel.: 669 69 24 30 (Ane)

LAN ESKAINTZAK
ETXEO LANAK

Plantxa orduka egiten dut. Esperientzia handiko emakumea, orduka plantxa zein etxeko lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. Tel.: 645 70 6839

PERTSONAK ZAINDU

Umeak zaintzeko. Umeak goizetan eskolara eramateko edo zaintzeko prest nago. Egurdietan eta arratsaldetan seietatik aurrera ere ahalko nuke. Urte askotako esperientzia daukat. Irantzu Tel.: 644 41 11 74

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago. Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali, Tel.: 602 89 50 18 gaztelaniaz mesedez.

Barneko langilea lan bila. Adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa litzatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644 55 83 90

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko

prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: Tel.: 643 72 71 98 zenbakira.

Pertsona nagusiak zaintzeko. Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak, lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

OSTALARITZA

Amaitemingo Basaguren jatetxeak zerbitzaria / barrako ardura duna behar du.

Tel.: 94 681 63 39

Premiazkoa da. Irenerengatik galdetu.




PATRICIA MARAÑA
ASTE HONETAN
MARI LUZ ESTEBAN

DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



Informazio gehiago:
ttap.eus





Botikak	
BARIKUA, 21 - 09:00-09:00	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	09:00-22:00
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 24 - 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 22 - 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 25 - 09:00-09:00
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	09:00-22:00
BALENCIAGA Ezkundi plaza 8 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
NAVARRO Arteakalea 6 - DURANGO	EGUAZTENA, 26 - 09:00-09:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	BALENCIAGA Ezkundi plaza 8 - DURANGO
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 27 - 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
09:00-22:00	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 23 - 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Txaber** (767. alea)!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Zorionak, maitia! 5 urte dagoeneko. Horren zoriontsua izaten jarraitzea espero dogu. Maite zaitugu! Laida, amatxo eta aitaxo.

Zorionak, mutil handi! Honezkero 42 urte... Jarraitu orain arte bezala, Euskal Herriko tontor guztiak igon arte. Mosu handi bat Ekain, Irati eta Monikan partez.

Ekainaren 15ean gure etxeko txikiak 6 urte egin zituen. Zorionak, **Lizar**! Handia zara gero! Etxekoen partez muxu handi bat, laztana.

Zorionak, **Iraia**! Uda hasieriaz batera gaur 8 urte betetzen dozuz. Egun ona izan daizula! Familia guztian partez mosu handi bat eta bidez batez, primerako oporrak pasau!

Zorionak, **Peio**. Aurten atzerapen handiagoaz, baina ez ahaztute egon zaielako. Jarraitu horrela, arduratsua, alaia eta jatorra. Familia guztiaren partez, mosu potolo potooloak.

Oinatzek, gaur, ekainaren 21ean 8 urte egin ditu. Zorionak familia guztiaren partez.

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 28° / 9° ☁️	ASTELEHENA 🌡️ 31° / 15° ☁️	EGUAZTENA 🌡️ 21° / 16° ☁️
DOMEKA 🌡️ 33° / 17° ☁️	MARTITZENA 🌡️ 26° / 15° ☁️	EGUENA 🌡️ 22° / 14° ☁️

Martxan da Anbotoren
Udako 5. argazki lehiaketa

Bidali zure argazkiak ekainaren 28tik
irailaren 15era bitartean

Animatu eta parte hartu!



“Kipulagaz, zerbagaz edo espinakagaz urre koloreko tindagaiak lortu daitezke”

Landareetatik datozen tindagai naturalak erabilia, naturaren kolorea ematen dio artileari

Silvia Formenti Sabater

(1979, Badalona)

• Alluitz Natura

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Maitasunak Elorriora ekarri zuen Silvia Formenti. Nazioarteko lankidetzan aritutakoa da bera eta, hemen ere, dibertsifikatze ekonomikoagaz lotutako proiektu bat garatzeko aukera ikusi zuen gazta eskola bat sortu gura zuen Patxi Solana ezagutzean. Alluitz Natura sortu zuten. Artilea lantzen ikasi zuen eta, orain, dituen erabilerak ezagutarazten lan egiten du. Katalanak euskaraz erantzun die ANBOToren galderari.

Artilea, sasoi batean produktu erabilgarria zena birziklatu daitekeen hondakin bihurtu da?

Jendeak oparitzeko egiten dituen eskulanetan, adibidez, edozein material erabiltzen du. Baina material jasagarria ere erabili daiteke. Adibidez, ardi latxaren artileagaz hainbat gauza egiten ikasi genezake. Papera ere lantzen dut, zumez erabiltzeko.

Denerik egin daiteke artileagaz?

Bai. Ortu bertikala edo lanpara bat, adibidez. Apaintzeko ere balio dezake.

Barazki eta frutak erabilia tindatzen duzu artilea...

Produktu begetal freskoagaz edo landare-estraktuagaz bakarrik tindatzen dugu. Landareetatik datozen tindagai naturalekin. Intxaur tintagaz, esaterako, indar handiko marroi polita lortzen da, eta oso kolore homogenea

ematen du. Kipulagaz, zerbagaz edo espinakagaz urre koloreko tindagaiak lortu daitezke, eta fruitu gorriekin, tindagai more edo gorriak. Mailukiek argi handiko arrosa kolorea ematen dute.

Zein da prozesua?

Artilea behin eta berriro garbitu behar da, eta gero, sikatu. Normalean, uztailean sikatzen dugu, eguzkiak indarra duenean. Behin sikatuta, apurtu egin behar da, eta ile guztiak askatu, gero orrazteko; bi edo hiru bider orraztea komeni da. Gero, artile hori tindatu egiten dugu, kolore finkatzaileak erabilia. Egosten utziko dugu tindagaia emateko. Beste aukera bat gau osoan uztea da. Bestalde, tindagiarako erabilitako produktuak ordubeteen egosiko ditugu. Landare-estraktuak ere erabili daitezke.

Zer da egin duzun gauzarik arraroen?

Arropa zaharra, gus-tuko ez duguna, apaintzea gustatzen zait gehien. Polarretan, puntu-lanetan... apaingarria ipinita, bereizi egingo dugu gure arropa. Alabari asko ipintzen diot. Artilea hodeia balitz lez hartu eta feltro lehorragaz gogortzen dut.

Badira urte batzuk Elorrioren bizi zarela. Zerk erakarri zaitu gehien?

Bizimodua oso lotuta dago natu-

ragaz hemen, eta asko gustatzen zait hori. Hodeiak ikusita, askok bada-kite euria datorrela. Hiri batean ez da hodeirik ikusten.



Berba bitan

Kolore bat?

Lagun bat

Zer da Natura?

Gure bizitza, eta ondorengoe-na. Sortu garen lekua.

Animalia bat?

Orain, ardia

Jateko...

Edozein barazki. Oso barazki-zalea naiz.

Mendia ala hondartza?

Oso zaila zait bat aukeratzea.

Baina... mendia

Katalunian hondartza ondoan bizi nintzen, baina ez da berdina. Soinuak oso desberdinak dira, naturaren isiltasuna oso polita da...

Zure jolasetako bat Elorrioko bidaiari opari izateko aukeratu zuten 2016an, Elorrioko Aztarnak lehia- ketan.

Oso ideia polita zen. Baina konturatu nintzen nirea sormena dela, eta ez ideiak egia bihurtzea. Ipuin bat kontatzen zuten dadiak-tikoe- osatzen zuten jolasa. Herriari egindako halako maitasun deklarazio bat izan zen. Elorrio altxor bat da: jendea, bizimodua, paisaia, ondarea... baina, askotan, horren parte izanda ere, ez gara horretaz konturatzen.

Lau- hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Nire eskubideak

Gaurko egunez idatziz uzten dut nire eskubideen deklarazioa, eskubide indibidualen oihan honetan bizirauteko oinarritzat. Beraz, neure buruari aitortzen diot ondorengoak egiteko eskubidea:

Taberna batean mozkortuta hornei eskua zabalik sekulako ostiak emateko eskubidea, horrela hobeto pasatzeko.

Etxean hogeita hamazazpi txakur edukitzeko eskubidea, eta hauen eskubideak udalari, facebook-eko talde bati edo Urkiolako San Antoniori erreklamatzeko ere.

Herriko plaza eta biribilguneetan dauden lore guztiak jateko eskubidea, eta gero herritik lasai asko udaberria barruan daramadala esatekoa ahoan irribarre handi batekin.

Edonora nik gura dudanean bidaiatzeko eskubidea.

Enpresa bat sortzeko eskubidea, eta ondoren enpresa txiki eta ertainak lagundu behar direla esatekoa.

Edozeri buruz iritzi propioa izateko eskubidea, gai horri buruz ezer ez jakin arren besteen iritzien parera ipintzeko.

Grebarik ez egiteko eskubidea eta ordu estrak egitekoa, enpresan gora egiteko aukera izateko eskubidea.

Edozeri buruz umorea egin, ingelesez abestu eta molatzen duten beste gauza batzuk egiteko eskubidea.

Deklarazio hau sinatuta uzten dut, dagokionaren aurrean. Eta hau nik sinatu nezake, edo beste edonork, edo zuk. Alde batetik, gure kapritxo eta ateraldiak justifikatzeko, beste alde batetik galtzen gabiltzan eskubideen izenez deitzen ditugulako.

Eskubide indibidualen putzu honetan, bakoitzak bere nahiak desiratu eta txanpon bat bota dezake, norbere burua eta besteena botatzen ari dela konturatu barik.

ALKIMAX

Irtenbideak alokatzen ditugu

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550

GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



Irtenbideak materiala igotzeko

Eskuzko jasogailua



GENIE GL10



GENIE SLA-20

Pilagailu elektrikoak



HYSTER S 1.2



PRAMAC LX1450